



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko ekainaren 25a

61. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (31. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (33. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 28.4 artikulua, zerga-oinarriaren aldaketa arautzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (39. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondare osoaren inbentarioa egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da bete dezan Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritakoa, 5. kapituluko 2. idatz-zatiari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernu premiatzen da pertsona atzerritarren internamendurako zentroak itxi ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (41. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da udako hilabeteetan “Gazteluen eta Gotorleku Ibilbidea” programari euts diezaion. Osoko Bilkurak onetsia (42. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Kanpo Arazoetarako Ministerioa premiatzen da ziurta dezan Armen Merkataritzari buruzko Itunean nazioarteko zenbait arau sartzea. Osoko Bilkurak onetsia (42. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteentzako informazio aldizkariak gaztelaniaz eta euskaraz aldi berean argitara ditzan. Mozioa erretiratzea (43. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzetarako buruzko plan orokor bat aurkez dezan. Mozioa erretiratzea (43. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzaitza sustatzeari buruzko irakasgai bat ezar dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (44. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENEA

I

Herritar guztiek bizi politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzea Konstituzio-ko printzipioetako bat da, eta horren azkeneko helburua da askatasun eta berdintasun egiazko eta benetakoak bermatzea. Administrazio publiko guztien konpromisoa da helburu bazterrekin horiek lortzea gurea bezalako gizarte moderno eta demokratiko baterako. Horiek osoki lortzea eragozten edo zailtzen duten oztupoak baztertzeo exijentziak behartzen gaitu gure ordenamendu juridikoa fintzera. Horretarako, gardentasuna, herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubidea eta herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea hobetzeko neurriak zehatzago eta argiago jasoko dira; izan ere, horiek dira erakundeak eta gobernua hobetzeko oinarria.

Gardentasuna ez da Europaren mailan bakarrik hobetu, Estatuan ere badira arau asko herritarrek botere publikoen informazioa eskuratzeari buruz, baina hainbat ikuspegitatik eginak. Esaterako, besteak beste, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Ingurumen arloan informazioa eskuratu, herritarrek parte hartu eta justizia lortzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea, Herritarrek

zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea, eta Sektore Publikoaren Informazioa Berriz Erabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea. Nafarroan hauek dira garrantzitsuenak: Nafarroako Foru Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea, eta Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legea. Era berean, nabarmentzekoa da Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legea; hainbat printzipio etiko eta jokaerako jasotzen ditu, Gobernuaren jardueraren publikizitatea eta gardentasuna bermatzen dituztenak.

Gobernu ona eta administrazio ona zer diren modu osoagoan eta integratzailean ikusteko, beharrezkoa da ikuspegi orokor bat izatea honako hauen gainean: jarduketa gardena izateko eskubidea, herritarrek duten parte hartzeko eskubidea eta herritarrek, zerbitzu publikoak hobetzeko, laguntzeko eta ekarpenak egiteko duten eskubidea. Gizarte demokratiko aurreratu batean, herritarrek, prozedura administratibo batean interesdun gisa eskubide funtsezkoenak aitorturik izateaz gain, erakutsi dute badutela jakiteko, parte hartzeko eta aktiboki laguntzeko nahia. Ezbairik gabe, horrek gure gizarte demokratikoa sendotzen du, eta bultzada ematen du Gobernuaren jardueraren gardenaren alde eta Administrazio eraginkorrako, hurbilago eta adeitsuago baten alde. Laburbilduz, zerbitzua jaso behar duten herritarren aurrean beren erantzukizunak hartzeko gai diren eta horretarako prestaturik dauden Administrazioa eta Gobernu nahi dira. Hala, Gobernu Ireki baten ideia sortu da, foru legean berean honela definitzen dena: herritarrekin etengabeko elkarrizketa bat izateko gai dena, haiek esaten eta eskatzen dutena entzuteko, bere erabakiak hartzen dituen

herritarren beharretan eta hobespenetan zentratu-rik, eta herritarren parte-hartzea eta elkarlana errazten dituen bere politikak zehazteko eta egin-kizunak betetzeko, informazioa ematen duena eta erabakitakoaren eta egindakoaren berri ematen duena, garden, bere burua kalitaterako eta etenga-beko hobekuntzarako irizpideen menpe jartzen duena, eta prestaturik dagoena egindakoengatik kontu emateko eta erantzukizuna hartzeko, zerbitzatu beharreko herritarren aurrean.

Badira hainbat alderdi eta funtsezko printzipio gure Administrazio Publikoa gidatzen dutenak behin betiko garden izatera eta herritarrekin harremanetarako modu berri bat ezartzera, eta foru lege honen helburua da arau bakar batean batzea alderdi eta printzipio horiek.

## II

Nafarroak, bere foru araubidearengatik, esku-men eskusiboa du Nafarroaren zuzenbide substantiboaren espezialitate edo antolaketa berekien ondoriozko prozedura administratiboko arauen gainean. Orobat, eskumen eskusiboa du Foru Diputazioaren araubide juridikoaren, bere Administrazioaren eta horren menpeko erakunde publikoen gainean. Administrazio publikoen aurrean administratuak berdintasunez tratatuko direla bermatzen da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 49.1 artikulua c) eta e) letrekin bat.

Foru lege honek arautzen duen arloak berarekin dakar Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde publikoen diseinu berri bat, eta hartzen den ereduak informazioaren gardentasunaren alde egiten du, informazio hori berrerabiltzearen alde eta zerbitzatu beharreko herritarren parte-hartzearen eta elkarlanaren alde. Horrela, administratzeko modu berri bat eratzen da, irekiagoa eta parte hartzeko aukera gehiago ematen dituen. Estatuak administrazio prozedura erkidearen arloan duen oinarriko legeriaren mugak errespetatzen ditu Nafarroak; izan ere, bere antolakuntzaren esparruaren barnean daude eskuratze-eskubideak eta eskubide horiek erabiltzeko prozedurak eta araubideak, eta, horretaz gain, horiek ez dituzte inola ere aipatutako mugak urratzen; aitzitik, legeria horrek ezarritako gutxienekotik haratago doaz. Gardentasunaren arloan, Administrazioak duen informazioa ez hain zorrotz eta, beraz, zabalago eskuratzeko eskubidea eratzeko berarekin dakar hobekuntza, harekin harremana duten guztientzat.

Ikuspegi oso eta integratzaile batekin heldu behar zaio botere publikoen jarduketaren gardentasunari, eta foru lege honek erakusten du horre-

tan zinez sinesten dela. Demokrazia aurreratu batean, gobernu ona eta administrazio ona oinarriko zutabe dira kalitatezko Administrazio bat izateko, eraginkorra, herritarrentzako eskura dagoena eta, hitz batez, funtzionatzeko moduan eredu-garria. Asmoa hori izanik, arau honetan hainbat neurri jaso dira gardentasuna izateko jardueren publikoan eta kudeaketa administratiboan, herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatzeko, jarduketaren administratiboa modernizatu, arrazionalizatu eta sinplifikatzeko, eta Administrazio Publikoaren kalitatea hobetzeko; orobat, Gobernuaren jardunerako etika eta gardentasun neurriak ere jaso dira. Horrek denak Gobernu Irekia benetan ezartzea du helburu.

Foru lege honen xedapen guztien asmoa da zerbitzurako sistema publiko bat eraikitzea, jokar-eran eta funtzionamenduan bikaina izanen dena, herritarrei konfiantza eman eta parte hartzera animatuko dituen, eta bere jardueraren gaineko kontrol eta zaintza etengabeko sistema izanen duena. Hala, Administrazioak bere jardueraren berri emanen die herritarrei. Horrela Administrazioaren beraren eta zerbitzari publikoen beren zilegitasuna ere sendotu nahi da. Dokumentu publikoak eskuratzeari buruz Kontseilu Europarrak emandako Europako Hitzarmenak oinarrian duen filosofia gauzatu egiten da arau honetan. Izan ere, arras bat dator gure Espainiako Konstituzioko printzipio eta balioekin. Nafarroa erabat sinetsirik dago dokumentuetan jasotakoa gauzatzeko beharra dagoela, herritarren eskubideak errealitate bihurtuz, eta aurrera eginez, erreferente bihurtuko duten tresna guztiak bilduz arau honetan; hain zuzen ere, erreferente zerbitzuaren kalitatean, gardentasunean eta gobernu ona izaten. Gobernuaren jardunean etika izateko konpromiso sendoa adierazten da, eta, halaber, horrela errazten da Nafarroako Parlamentuak gauzatzen duen kontrola. Foru lege honen manu guztiak hori dena lortzera bideraturik daude.

## III

Arreta berezia eskaini behar zaio jardun publikoaren gainean informatzeko eta haren publikizitatea egiteko betebeharra arautzen duen eredu berriari. Argi bereizi behar dira honako hauek: batetik, publikizitate aktiboa, hau da, inork eskatu behar izan gabe, garrantzi handienekotzat jotzen den informazioa emateko eta etengabe zabaltzeko betebeharra, betiere egiazko informazioa, eta, bestetik, informazio publikoa eskuratzeko edozein herritarrek duen eskubidea, aldeztu aurretik eskatuta, foru lege honetan dauden mugekin bakarrik. Jarduera publikoan, gardentasunaren zerbitzuan dago publikizitate aktiboa, halako moldez non herri-

tarrak ez baitu informazio bat eskatu behar; aitzitik, Administrazio Publikoak ematen dio dauden bideen bitartez, eta, batez ere, Internet bidez.

Era berean, foru lege honek ekimen pribatua sortzearen alde egiten du, eta informazio publikoaren berrerabilera sustatzen du. Administrazioak duen aktibo handienetako bat daukan informazio kopuru handia da, hori gauza jakina da, eta, legez ezarritako mugak errespetatzen badira, partikularrek informazio hori eskuratu dezakete eta produktuak eta zerbitzuak sortu, eta, horrela, aberastasuna ekarriko duten sinergia positiboak ezartzea erraztu daiteke.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubideak eraketa desberdina du, izan ere kontua ez da eskuratzea Administrazioak jadanik jakitera eman duen edo emateko betebeharra duen informazioa, baizik eta beste edozein, betiere eskuratzeko mugaturik ez badago, edo haren zabalkundea eragotzia ez badago; horregatik, kasu horiek zehatz arautzen dira. Batzuetan beharrezkoa izan da dauden interesak baloratu behar izatea, eta informazioaren publikizatean dagoen goragoko interesa justifikatzea. Zenbaitetan, informazioa neurri batean bakarrik eskuratzen ahalko da, eta, beste zenbaitetan, datu pertsonalen babesak eskuratzeko hori eragotziko du. Horregatik, gai horiek zehatz arautzen dira.

Premisa horiek izanik, foru legearen eduki osoaren laburpen bat eman behar da.

#### IV

Foru lege honek honako egitura du: zortzi titulu, hamabi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

I. tituluak xedapen orokor batzuk ditu. Alde batetik, arauaren xedea eta aplikazio eremua ezartzen ditu. Administrazio Publikoen eta herritarren arteko harremanetarako modu berri baten ezarpena arautzen da; modu berri hori gardentasunean oinarritzen da, eta Gobernu Irekia ezartzera bideraturik dago, herritarrengandik hurbilago eta eskuragarriago bihurtuko duten eskubideak eta mekanismoak bermatuz. Jarduera administratiboaren eremu guztira zabaltzen da, eta haren printzipioak honako hauei aplikatzekoak dira: enpresa publikoak, fundazio publikoak, Nafarroako Foru Komunitateari eta haren erakunde publikoei lotutako zuzenbide publikoko entitateak eta zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak nahiz pribatuak. Hala adierazten da Foru Legearen 2. artikuluan. Orobat, Gobernu Irekiaren jarduketaren printzipioak definitzen eta adierazten ditu; haien jarduketak printzipio horien arabera

behar du izan. Informazio publikorako eta herritarren parte-hartzerako eta elkarlanerako eskubidea benetakoa bihurtzeko, eremu bakoitzeko hainbat eskubide aitortzen dira, baita herritarrek beren eskubideak defendatzeko dituzten eskubideak ere. Herritarrei aditzeko, informazioa emateko eta parte-hartzea bideratzeko beharrezkoa den bitarteko gisa eratzten da "Gobenu Irekia" izeneko ataria. Arauan aurreikusitakoa betetzeko, beharrezkoa da elkarlan eraginkorra izatea administrazioen eta araua aplikatu behar duten beste subjektu batzuen artean.

II. tituluaren gai nagusia jarduera publikoaren gardentasuna da. Hartarako, informazio publikorako edo ezagutza kudeatzeko sistema integral bat ezar dadila sustatuko da. Informazio publikoaren erantzukizuna duten unitateak izendatzen dira, eta informazio publikoaren mugak finkatzen. Modu murriztailean interpretatu behar dira muga horiek, eta lege maila duen arau batek ezarriko ditu. Titulu honek bi kapitulu ditu. Lehenbizikoa publikizate aktiboari buruzkoa da, eta, hartan, agintari publikoen betebeharrak adierazten dira, eta jakitera eman behar den informazioa zehazten da. Administrazioak herritarren zerbitzura jarri beharreko jarduera izan behar du informazio publikoaren berrerabilerak; ekimen partikularra eta haren erabilera erraztu behar dira, eta, horretarako, foru lege honek ezartzen du zer baldintzatan egin behar den hori. Bigarren kapitulua kudeaketa administratiboaren gardentasunari buruzkoa da; betebeharrak gisa ezartzen da herritarren eskura egon behar dela oinarritzko jarduketako eremuetako informazio garrantzitsuena, eta, bereziki, gardentasuna honako arlo hauetan hartzen da kontuan: kontratazio publikoan, zerbitzuen esleipenean, elkarlan hitzarmenetan, diru-laguntzetako jardueretan eta lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan. Hala, berariazko foru legeek ezartzen duten informazioa osatu egiten da.

III. tituluaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen da. Lehenbiziko kapituluaren eskubide hori erabiltzeko arau orokorrak ezartzen dira. Eskubide horri esker, aldez aurretik eskaera eginda, informazio publikoa eskuratzeko ahal da, Foru Legean ezarritako mugekin bakarrik, eta eskaera arrazoitu behar izan gabe, eta, halaber, argudio gisa Foru Legea arrazoitzat aipatu behar izan gabe. Dena dela, eskubide horrek baditu mugak, eta horiek berariaz aurreikusi dira. Nolanahi ere, babesaren xede eta helburu izanik jarri behar dira muga horiek, eta, aplikatu ere, epe zehatz batean bakarrik aplikatuko dira, edo justifikatzen dituzten arrazoiak dirauten bitartean. Era berean, Administrazio Publikoak zabalkunderako dituen betebeharrak ere aplikatu daitezke legeko muga

horiek. Datu pertsonalen nahitaezko babesa ere kontuan hartu da: ezartzen da babes horrek lehen-tasuna duela informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen aurrean, baldin eta gatazkarik bada eta ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babestu behar bada. Bigarren kapituluaren eskubidea erabiltzeko prozedura arautzen da. Zehazten dira eskaerak izan behar dituen datuak, tramitera ez onartzeko zergatiak, hirugarrenen eskubideak edo interesak ukitzen dituen informazioa eskatzen denean eskaera igortzeko beharra –horiek bidezkoa dena alega dezaten–, ebazteko epeak, isiltasunaren esanahia eta prozeduraren ebazpena. Legeen maila duten berariazko arauetan ezarritakoa da eskaera ebazteko epe orokorra, eta, halakorik ezean, hamabost egun aurreikusten dira, eta, tamainagatik eta konplexutasunagatik hala behar denean, hogeita hamar egun. Isiltasuna positiboa da. Informazioa zer modutan eta formatutan eman behar den ere arautzen da.

IV. tituluan herritarren parte-hartzea eta elkarlana arautzen dira. Lehenbiziko kapituluaren jasotzen dira Administrazio Publikoak horiek bultzatzeko eta sustatzeko duten betebeharra eta zenbait plan eta programa orokorretan herritarren parte-hartzea izateko bermeak. Halaber, berariaz jasotzen da unibertsitateen, lanbide elkargoen eta aholku kontseiluen parte-hartzea eta elkarlana, bai eta beren eskumenak erabiliz sustatzen dituzten jarduketetarako egokitzat jotzen diren gainerako entitate eta erakundeenak ere. Bigarren kapituluaren herritarren parte-hartzerako eta elkarlanerako tresnak arautzen dira; Administrazio Publikoak parte-hartzea eta elkarlana gauzatzeko mekanismoak dira horiek. Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistro bat ezarriko da, arlo zehatzetan interesa duten herritarrek eta herritarren entitateek izena eman dezaten, eta, horrela, aurreikusten diren bitartekoetan aktiboki parte hartu ahal izan dezaten, besteak beste kontsulta-foetoan, herritarren paneletan eta herritarren epaimahaietan. Hirugarren kapituluaren berariazko eskubideak jasotzen dira, esaterako hauek: parte-hartzea eta elkarlana politika publikoak definitzean eta politika publikoak eta Administrazio Publikoen zerbitzuen kalitatea ebaluatzean; izaera orokorreko xedapenak egiteko parte hartzea; erregelamenduzko ekimenak proposatzea; jarduketa proposamenak edo iradokizunak egitea; eta herritarren jardueretan Administrazio Publikoaren elkarlana eskatzea. Eskubide horiek gauzatzeko, dagokion parte-hartzeko prozedura ireki behar da, eta emaitza txosten batean jaso.

V. tituluan agertzen da arau honetan argi eta garbi egin dela jarduketa administratiboa modernizatzearen, arrazionalizatzearen eta sinplifikatzearen

alde, nahitaezko osagarria baita Gobernu Irekia ezartzeko eta herritarrentzat ulergarriagoa, hurbilagoa eta irisgarriagoa den Administrazioa lortzeko, arinagoa eta bermatzaileagoa. Helburu horiek gauzatzeko, Administrazioak Sinplifikatzeko Plan Orokor bat, asmo handikoa, egin behar du. Haren helburuak lehenbiziko kapituluaren jaso dira. Bigarren kapituluaren arauen kalitatea hobetzeari buruzkoa da. Hainbat bitarteko jasotzen dira hura arrazionalizatzeko, sinplifikatzeko eta arautzea hobetzeko; besteak beste, ekimenak alde aurretik analizatzea, herritarren parte-hartze eta elkarlan prozesuak bultzatzea, “a posteriori” egindako ebaluazio prozedurak garatzea eta araugintza-tekniketarako jarraibideak egitea.

VI. tituluan esparru orokor baten diseinua arautzen da, Administrazioaren kalitatearen etengabe-hobekuntzarako; bete beharreko estrategiak eta hartzen diren konpromisoak ezartzen dira.

VII. titulua Gobernuaren jardunaren etikari eta gardentasunari buruzkoa da. Adierazten da ezen interes orokorrak eta kudeaketako gardentasunak behar dutela izan Nafarroako Gobernuaren kideen eta goi kargudunen jarduketaren gidari, eta martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legearen bidez onetsitako Gobernu Onaren Kodean jasotako printzipio etikoak eta jokaerakoak bete behar direla. Orobat, hauek ere arautzen dira: interes gatazka izan daitekeenean jarduera pribatuetan ez aritzeko betebeharra; ordainsarien, jardueren eta ondasunen publizitatea; kargua utzi ondorengo ordainsariak; eta gobernuaren jardunean beharrezkoa den gardentasuna eta herritarrei kontu ematea. Halaber, Gobernuaren aldatzen denean botere eskualdaketa gardenagoa izateko arauak ere jasotzen dira.

VIII. tituluan, foru lege honetako xedapenak betetzeko herritarrek dituzten berme administratibo, judicial eta judizial kanpokoak jasotzen dira. Bada aukera Administrazioarekiko errekurtsioak –administrazio-prozedura erkideari buruzko oinarritzko araudiak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legeak arautua–, eta, kasua bada, ondorengo administrazioarekiko auzi-errekurtsioak aurkezteko, eta, horretaz gain, Nafarroako Arartekoaren aurreko kexa. Lehendakaritza arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak ebatziko ditu gora jotzeko errekurtsioak, eta, hartarako, aipatutako 15/2004 Foru Legea aldatzen da. Era berean, jasotzen da unitate bat sortuko dela informazioaren eta herritarren parte-hartzearen eta elkarlanaren arloko txostenak egiteko, irizpide batasun bat izateko.

Foru legea xedapen gehigarri batzuek osatzen dute. Honako gai hauei buruzkoak dira: jarraipen batzorde bat sortzea gardentasuna eta Gobernu

Irekia ezartzeko; informazio publikoa eskuratzeko eskubidea modu telematikoan tramitatzea; Nafarroako Gobernuari manu bat ematea urtebeteko epean Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko proiektua egin dezan, entitate horien jardueretan foru lege honetako printzipioak eta aurreikuspenak gehitzeko; beste erakunde batzuetan gardentasuna sustatzea; Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileentzat prestakuntzako plan berriazko bat abiaraztea, aurreikusitako eskubide eta betebeharreri buruz; euskararen erabilera informazio publikoa eskuratzeko eskubidean; eskuratzeko eskubidearen arautze bereziak; foru legea gidatzen duten printzipioak bermatzeko egin beharreko egokitzapenak; diru-laguntzen onuradunek gardena izateko dituzten betebeharrak; arauak egokitzeko bultzada ematea; hizkuntzako genero berdintasuna; eta, azkenik, lizentzien tramitazioa erraztea.

Azkenik, Foru Legeak xedapen indargabetzaile bat du, non ezartzen baita foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapenak indarrrik gabe gelditzen direla, eta hiru azken xedapen: lehenengoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea aldatu eta, horrela, lehendakaritza arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularren esku uzten du gora jotzeko errekurtsioen ebazpena, errekurtsio horiek informazio eta parte-hartze eta elkarlan publikoaren arloko egintzei aurkeztuak direnean; bigarrenak Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan Foru Legean ezarritakoa garatu eta betearazteko; eta hirugarrenak, azkenik, argitaratu eta sei hilabetera hartuko duela indarra adierazten da.

## **I. TITULUA**

### **Xedapen orokorrak**

#### **1. artikulua.** Foru legearen xedea.

1. Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko harreman mota berri bat arautzen du foru lege honek, gardentasunean oinarriturik dagoena eta Gobernu Irekia izenekoa ezartzea helburu duena, sakontze demokratiko gisa, honako hauek benetan bermatuz:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta hurrengo artikulua aipatzen dituen erakunde eta entitateen jardueraren gardentasuna.

b) Herritarrek duten eskubidea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta hurrengo artikulua aipatzen dituen erakunde eta entitateen

esku dagoen informazioa eskuratzeko. Informazio hori egiazkoa eta inpartziala izanen da beti.

c) Herritarrek duten eskubidea zuzenean edo zeharka interes publikoan eragiten duten aferetako erabakietan parte hartzeko. Hartarako, elkarrizketa ireki, garden eta erregular bat izanen da.

2. Gobernu Irekia ezartzeko nahitaezko osagarri gisa, foru lege honek hainbat mekanismo arautzen ditu, Administrazio Publikoa egitura eta prozedura sinplifikatuz eta berritzaileez hornitu dadin, hurbilago eta eskuragarriagoa izan dadin lagundu beharreko herritarrentzat.

#### **2. artikulua.** Aplikazio-eremua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hau hartzen da Administrazio Publikotzat: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta harekin lotutako edo haren menpeko erakunde publikoak.

2. Sozietate publikoek, fundazio publikoek eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioarekin eta haren erakunde publikoekin lotutako zuzenbide publikoko entitateek, bai eta haien agintaritzapean zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek ere, foru lege honen printzipio gidarietara egokituko dute beren jarduera, eta, gainera, zer administrazioari lotuta dauden, administrazio hari lege honetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzeko behar duen informazio guztia eman beharko diote. Hori dena, beren arauak xedatzen dutena galarazi gabe.

#### **3. artikulua.** Definizioak.

Foru lege honek agintzen duenerako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

a) Herritarra: Administrazioarekin harremana duen edozein pertsona, izan bakarka eta bere ize-nean, izan legez eraturako erakundeetan taldekaturik edo haien bidez ordezkaturik eta haien izenean.

b) Gobernu Irekia: Administrazio Publikoaren funtzionatzeko modua herritarrekin etengabeko elkarrizketa bat izateko gai dena, haiek esaten eta eskatzen dutena entzuteko, bere erabakiak hartzen dituen herritarren beharretan eta hobespenetan zentratuturik, eta herritarren parte-hartzea eta elkarlana errazten dituen bere politikak zehazteko eta eginkizunak betetzeko, informazioa ematen duena eta erabakitakoaren eta egindakoaren berri ematen duena, garden, bere burua kalitaterako eta etengabeko hobekuntzarako irizpideen menpe jartzen duena, eta prest dagoena egindakoengatik kontu emateko eta erantzukizuna hartzeko, zerbitzatu beharreko herritarren aurrean.

c) Publizitate aktiboa: informazio publiko garrantzitsuena etengabe zabaltzeko betebeharra, Administrazio Publikoaren jardueraren gardentasuna bermatzeko.

d) Informazio publikoa: foru lege honek aipatutako Administrazio Publikoak prestatzen duen edo bere eskuetan dagoen informazioa, euskarria eta adierazteko modua edozein izanik ere. Ez da hala-kotzat hartuko foru lege honen 28. artikuluko e) atalean aipatutako dokumentazioa.

Halaber, informazio publikotzat hartuko da zerbitzu publikoak ematen dituzten edo ahalmen administratiboak edo eginkizun publikoak betetzen dituzten beste entitate edo subjektu batzuek egindakoa edo haien jabetzakoa, baldin eta haien jarduera publikoan sortu edo lortu bada, edo jardue- ra publiko bat betetzeko.

e) Herritarren parte-hartzea eta elkarlana: herritarrek gai publikoetan esku hartzea eta haie- tan inplikatzeko.

f) Herritarren entitateak: irabazi asmorik gabe- ko pertsona juridikoak, antolamendu juridikoarekin bat eratutakoak, herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatzearekin lotutako helburuak dituz- tenak, foru lege honetan aurreikusitako Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan inskribaturik daudenak.

**4. artikulua.** Gobernu Irekiaren jarduketaren printzipioak.

Aplikatzekoak zaizkion arauetan aurreikusitako printzipioetara egokituko du bere jarduketa Admi- nistrazio Publikoak, eta, horretaz gain, Gobernu Irekia ezartzeko foru lege honek funtsezkotzat jot- zen dituen printzipioetara, hau da:

a) Herritarrek helburu izatearen printzipioa: Administrazioaren jarduketak herritarren egiazko beharren asetzea behar du izan helburu, interes orokorra bilatu behar du beti, eta gizarteari zerbi- tzua emateko borondatea izan behar du ezaugarri.

b) Gardentasunaren printzipioa: Administrazio- ak gardentasuna sartu behar du kudeatzen dituen jarduera guztietan eta bere antolakuntzan, halako moldez non herritarrek ezagutzen ahalko dituzten haren erabakiak, nola hartzen diren, nola antola- tzen diren zerbitzuak eta nor diren haren jarduke- ten erantzukizuna duten pertsonak.

c) Publizitate aktiboaren printzipioa: Administra- zioak etengabe eman eta zabaldu behar du, objektiboki, bere esku duen informazioa eta bere jarduketari buruzkoa, egiazkoa.

d) Herritarren parte-hartze eta elkarlanaren printzipioa: Administrazio Publikoak, bere politiken

diseinuan eta bere zerbitzuen kudeaketan, berma- tu behar du herritarrek, bai bakarka bai taldeka, gai publikoetan parte hartzeko, laguntzeko eta inplikatzeko aukera izan dezatela.

e) Eragimenaren printzipioa: Administrazio Publikoak bere bitartekoak modu optimoan kudea- tu behar ditu, halako moldez non bilatzen diren helburu publikoak zuzenean betetzeko aukera emanen baitu.

f) Ekonomiaren eta bizkortasunaren printzipioa: helburu publikoak kostu ekonomiko zentzuzkoena- rekin eta ahalik eta lasterren lortzeko moduan jokatu behar du Administrazio Publikoak, erantzute- ko denborak progresiboki murriztuz; hori hala izan dadila begiratuko du.

g) Aurrea hartzearen printzipioa: herritarren arazoei eta eskaerei aurrea hartuz diseinatu behar ditu Administrazio Publikoak bere politikak, eta zer- bitzuak ere hala kudeatu behar ditu.

h) Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren printzipioa: ematen dituen zerbitzuak ebaluatzeko eta horien gabeziak atzeman eta zuzentzeko pro- zesuak ezarri behar ditu Administrazio Publikoak, herritarrei kalitatezko zerbitzu publikoak emateko.

i) Sinpletasunaren eta ulertzearen printzipioa: tramiteak progresiboki gutxitzeari ekin behar dio Administrazio Publikoak, hizkera ulertterraza erabil- tzea eta zama administratiboak kentzea sustatuko duten prozesuak eta teknikak ezarritz.

j) Arauen kalitatearen printzipioa: araugintzara- ko ekimena erabiltzean, Administrazio Publikoak honako printzipio hauekin bat jokatu behar du: beharra, proportzionaltasuna, segurtasun juridi- koa, gardentasuna, eskuragarritasuna, sinpletasu- na eta eraginkortasuna.

k) Modernizazioaren printzipioa: Administrazio Publikoak teknika informatikoak eta telematikoak erabiltzea sustatu behar du, bere jarduketa gara- tzeko eta bere antolakuntzan ezagutzaren kudea- keta ezartzeko eta hobetzeko.

l) Bere kudeaketan erantzukizuna izatearen printzipioa: Administrazio Publikoak berariaz hartu behar ditu bere gain herritarren aurrean dituen betebeharrak, eta bere erabaki eta jarduketan ondoriozko erantzukizunak ere bere gain hartu behar ditu.

m) Jokaera-kodea errespetatzearen printzipioa: Administrazio Publikoak eta bere buruek uneoro errespetatuko dute zerbitzatu beharreko herrita- rren aurrean hartutako jokaera etikoaren konpro- misoa.



n) Eskuragarritasunaren printzipioa: Administrazio Publikoak begiratuko du bere bulegoetan, bere politiken diseinuan eta bere jarduketan guztietan eskuragarritasun unibertsala gauzatu dadin.

ñ) Neutraltasun teknologikoaren printzipioa: Administrazio Publikoak, bere funtzionamenduan, kode irekiko softwarea erabiltzearen eta sustatzearen alde egingen du, eta teknologiaren eta informatikaren arloan estandar irekiak eta neutralak erabiltzearen alde. Orobat, aplikazio edo garapen informatikoak kontratatzean, irtenbide ireki, bateragarri eta berrerabilgarri horien alde egingen du.

### 5. artikulua. Eskubideak.

Informazio publikorako eta herritarren parte-hartzerako eskubidea benetakoa bihur dadin, edozein herritarrek erabiltzen ahalko ditu ondoko eskubideak Administrazio Publikoarekin dituen harremanetan, foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat:

#### 1. Informazio publikoari dagokionez:

a) Administrazio Publikoak, foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetz, herritarren eskura utzitako informazio publikoa eskuratzea.

b) Administrazio Publikoaren esku dagoen informazioa lortzea, aldeztu aurretik eskaera eginda, hartarako interes zehatz bat aitortzera beharturik egon gabe, eta foru lege honetako mugekin baka-riki.

c) Foru lege honek ematen dizkien eskubideen berri izatea, eta horiek egoki erabiltzeko aholkularitza jasotzea.

d) Informazioa bilatzeko laguntza jasotzea.

e) Eskatzen duen informazioa jasotzea, foru lege honek ezarritako gehieneko epeetan.

f) Eskatutako informazio publikoa aukeratutako moduan edo formatuan jasotzea, foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat.

g) Jakitea zergatik ez zaion informazioa ematen, bai batere informaziorik ematen ez zaionean, bai neurri batean ematen ez zaionean, eta zergatik ez zaion ematen informazioa eskatutako moduan edo formatuan.

h) Eskatutako informazioa lortzeko exijitu daitezkeen tasen eta prezioen zerrenda ezagutzea, baita salbuesteko arrazoiak ezagutzea ere.

#### 2. Parte-hartze publikoari dagokionez:

a) Herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko bitarteko berri izatea eta horri buruzko aholkularitza jasotzea.

b) Foru lege honetan aipatutako planak eta programak prestatzeko, aldatzeko eta berrikusteko prozesuetan egiaz eta eraginkorki parte hartzea.

c) Aipatutako plan eta programa horien inguruko informazio garrantzitsua behar adinako denboraz eskuratzea.

d) Horretarako irekitzen diren jendaurreko trantseetan, alegazioak eta oharra egitea, aipatutako plan, programa edo izaera orokorreko xedapenen gainean erabakia hartu aurretik, eta eskumena duen administrazio organoak horiek behar bezala kontuan hartzea.

e) Parte hartu duen prozedurako behin betiko emaitza jakitera ematea, eta hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten berri eman dakiola, parte hartzeko prozesu publikoari dagokion informazioa barne.

f) Eraginkorki eta egiaz parte hartzea, aplikatutako den legerian xedatutakoarekin bat, hala ezarritako administrazio prozeduretan.

#### 3. Beren eskubideen defentsarekin loturik:

a) Foru lege honek informazio eta parte-hartze publikoaren arloan aitortzen dizkien eskubideak urratzen dituzten egintzak eta ez-egiteak errekurritzea.

b) 69. artikulua aipatutako kexa jartzea beren eskubideak babesteko, manu horretan aurreikusitako moduan.

c) Herritarrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea babesteko sustatzen dituzten prozeduren ondorioz Administrazio Publikoak hartzen dituen erabakien berri eman dakiola.

**6. artikulua.** Gobernu Irekia ezartzeko neurriak.

Foru lege honetan jasotako neurriak, horien bidez lortu nahi diren helburu zehatzen arabera, honela sailkatzen dira:

a) Jarduera publikoan eta kudeaketa administratiboan gardentasuna izateko neurriak.

b) Herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatzeko neurriak.

c) Administrazio jarduketaren modernizatzeko, arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko neurriak.

d) Administrazio Publikoaren kalitatea hobetzeko neurriak.

e) Gobernuaren jardunerako neurri etikoak eta gardentasunekoak.

**7. artikulua.** Gobernu Irekiaren ataria.

1. Nafarroako Gobernuak Interneten duen atariaren esparruan, Gobernu Irekirako atari berariazko bat garatuko da, software libreko plataforma informatiko baten gainean eratuko dena.

2. Honako hauetarako gune gisa eratuko da atari hori:

a) Herritarrei aktiboki entzun dakiela eta herritarren eta Administrazio Publikoaren arteko elkarriketa izan dadila sustatzea, jarduketa publikoa haien eskaeretara bideratzeko.

b) Herritarrei informazioa denbora errealean eta tratatu gabe ematea, libreki eta dohain partekatu ahal izan dadin.

c) Datuak herritarren eskura uztea formatu irekietan, berrerabil daitezten onura publikorako eta, balioa eta aberastasuna sortzeko, informazio horren ondoriozko produktuak lortu nahi dituen edozein pertsonaren onurarako, datuen irekiera edo OpenData izenez ezagutzen diren proiektuetan.

d) Herritarrek gai publikoetan duten parte-hartzea eta inplikazioa bideratzea, Administrazio Publikoaren laguntzaile aritu daitezten, prozesuen irekiera edo OpenProcess izenez ezagutzen diren proiektuetan.

**8. artikulua.** Elkarlana eta koordinazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gainerako administrazioekin eta 2. artikulua aipatutako entitate eta pertsonekin ezarriko dituen elkarlaneko eta, behar denean, koordinazioko mekanismo eraginkoragoak, herritarrek benetan erabili ahal izateko foru lege honetan aitortutako eskubideak. Horretarako, haiek denek koordinazioaren, elkarren arteko informazioaren, lankidetzaren eta elkarlanaren printzipioetara egokituko dituzte beren jarduketak.

**II. TITULUA****Gardentasuna jarduera publikoan**

**9. artikulua.** Ezagutzaren kudeaketaren edo informazioaren sistema integrala.

1. Administrazio Publikoak informazio publikoaren gardentasuna sustatuko du, ezarriz, horretarako, ezagutzaren kudeaketaren edo informazioaren sistema integral bat.

2. Informazioa emateko bide desberdinak integratuko ditu sistema honek, halako moldez non bermatuko baita herritar guztiekeskuragarri izan den dutela, edozein izanik ere beren bizitokia, presta-

kuntza, baliabideak, inguruabar pertsonalak edo maila edo egoera soziala.

3. Sistema horrek bermatuko du bai herritarrek informazio publikoa eskura izatea, gai publikoetan jarrera informatua eta parte-hartzea izan dezaten, bai barneko esparruko ezagutzaren kudeaketa eskura izatea, jardun publikoan eragimena sustatzeko.

4. Foru lege honetan jasotako informazio publikoaren arloko betebeharrak segurtatzeko beharrezkoak diren datuen eta dokumentuen biltegi edo biltoki zentralizatu bat izan den sistema horrek. Oraingo artxiboaren sisteman integratuko eta antolatuko da sistema hori, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearekin bat.

**10. artikulua.** Informazio publikoaren ardura duten unitateak.

Administrazio Publikoak, herritarrek informazio publikoa izateko eskubidea benetako bihurtzeko, informazio publikoaren ardura duten unitateak izendatuko ditu. Foru lege honetan ezarritako betebeharrak behar den denboran eta moduan tramitatzearen ardura izan den dute, oraingo artxibo sistemarekin elkarlanean, eta, bereziki, artxibo digitalarekin.

**11. artikulua.** Mugak.

1. Administrazio Publikoak herritarrei informazio publikoa emateko betebeharra beteko du foru lege honetan aurreikusitakoarekin bat, eta, hura betetzean, aplikatzekoak diren Nafarroako, Estatuko eta Europako legeek ezarritako baldintzak eta mugak errespetatuko ditu.

2. Ondorio horietarako, gardentasunaren printzipioa printzipio orokorra izanik, lege maila duen arau batek ezarri behar du salbuespen edo muga oro, eta, aplikazioan, modu murriztailean interpretatu behar da.

**I. KAPITULUA****Publizitate aktiboa****12. artikulua.** Betebeharrak.

Jarduera publikoan gardentasunaren printzipioa gauzatzeko, honako jarduketa hauek sustatuko dira:

1. Jardueraren gardentasuna eta herritarrek gai publikoetan inplikatzeko bermatzeko, garrantzi handienekotzat jotzen den informazio publikoa etengabe ematea eta zabaltzea, betiere egiazko informazioa, objektiboki eta modu eguneratuan.

2. Behar diren neurriak hartzea, segurtatzeko informazio publikoa pixkanaka zabalduko dela eta herritarren eskura utziko dela ahalik eta modu zabal eta sitematikoenean.

3. Eginkizunak betetzeko garrantzia duen eta bere esku dagoen edo bere izeneko beste entitate baten esku dagoen informazio publikoa antolatzea eta eguneratzea, jendaurrean aktiboki eta sitematikoki zabaltzeko, bereziki informazioaren eta telekomunikazioen teknologien bidez; betiere, horiek baliatzerik baldin bada.

4. Behar diren neurriak hartzea, bermatzeko informazioa eskuragarri egon dadila, pixkanaka, herritarrek erraz eskuratzeko moduko datu base elektronikoetan, telekomunikazioetako sare publikoen bidez.

5. Informazio publikoa zabaltzea helbide elektronikoan estekak sortuz eta horien bidez jarriz informazioa eskuragarri.

6. Foru lege hau interpretatzeko eta aplikatzeko gakoak diren alderdiei buruzko arau eta ebazpen administratibo eta judizialen katalogoko bat eguneraturik izatea, eta jendaurrean eta denentzat eskuragarri jartzea, ahalik eta modurik zabal eta sitematikoenean.

7. Eskatutako informazioari buruzko kontsultak egiteko bitartekoak sortzea eta mantentzea.

8. Administrazio Publikoaren esku dagoen informazio publikoaren inbentario bat sortzea, informazioa non aurkitu daitekeen jakiteko azalpen argiak izan behar dituen.

**13. artikulua.** Jakitera eman beharreko informazioa.

Administrazio Publikoak, bere eskumenen eremuan, oro har, eskuragarri jarri behar die herritarrei informazio argia, objektiboa, eguneratua, eta erraz eskuratzeko moduan. Honakoa da eskuragarri jarri beharreko informazioa:

a) Erakundearen antolaketa, antolaketaren egitura, adierazita zer eginkizun dituen organo bakoitzak, zer egoitza duen eta nola jarri beraiekin harremanetan, arduradunen identifikazioa, eta plantilla organikoa, lanpostuen zerrendarekin batera. Informazio hori, halaber, sozietate publikoei eta fundazio publikoei dagokienez ere emanen da jakitera.

b) Nafarroako Gobernuak kideen eta Administrazio Publikoko goi kargudunek dituzten ordainsariak, jarduerak eta ondasunak, eta karguak utzi ondoren jasotzen dituzten ordainsariak, foru lege honen VII. tituluan aurreikusitakoarekin bat.

c) Nortzuk diren langileak ordezkatzeko dituzten organoetako kideak, eta zenbat diren departamentu eta erakunde publiko bakoitzean dauden liberatu sindikalak, adierazita zer erakunde sindikaleta-koak diren, bai eta liberatze horiek haien departamentuei eta erakunde publikoei eragiten dizkieten kostuak ere. Halaber, erabilitako ordu sindikalaren kopuruaren berri emanen da.

d) Prozedura administratiboen inbentario eguneratua, adieraziz zein dauden eskuragarri formatu elektronikoan, bai eta idazkiak eta komunikazioak aurkez daitezkeen erregistroen egoitza ere.

e) Zerbitzuen katalogo orokorra eta prestatutako zerbitzu-gutunak, bai eta zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak aurkezteko prozedura ere.

f) Aurrekontuak eta Kontu Orokorrak, edukiari buruzko deskribapenekin eta exekuzioari buruzko datuekin. Zehazki, departamentuen eta erakunde publikoen urteko kontu-sailak jasoko dira, eta betetze-maila hiru hiletik behin zenbatekoa den ezagutzeko bidea ematen duen informazioa ere bai, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak aurreikusten duenarekin bat.

g) Nafarroako Foru Komunitateko araudi indarduna, eta araudi horri buruz *a posteriori* egindako ebaluazioa, horrela bermatzeko araudi horri eboluzionatzen eta egokitzen joan dela aplikatu beharreko errealitate politiko, ekonomiko eta sozialera.

h) Foru araudiaren interpretazioan edo aplikazioan eragin handiena duten zuzentzauei, jarraibideei, zirkularrei eta erantzunei buruzko informazioa, hain zuzen herritarrentzat garrantzi handienekotzat jotzen diren horiei buruzkoa, horietan agertzen diren datu pertsonalak kenduta, kasua denean.

i) Unean-unean prestatzen ari diren araei buruzko prozeduren zerrenda, adieraziz horien xedea eta tramitazioaren egoera.

j) Arauen proiektuak tramitatzea justifikatzen duten arrazoiak, horiek entzunaldia emateko tramitean edo jendaurrean jartzeko tramitean daudenean, baldin eta uste bada herritarren eskubideak eta interesak ukitzen dituztela, edo eragin eta garrantzi berezia duten arloak ukitzen dituztela.

k) Planei buruzko informazioa. Bereziki, arau-xedapen batean aurreikusitakoa betez egindako planei buruzkoa.

l) Elkarlan hitzarmenei, kontratuei, esleipenei eta diru-laguntzei buruzko informazioa, foru lege

honetan eta horien gaineko berariazko arauetan ezarritakoarekin bat.

m) Egin beharreko urteko eta urte anitzeko planei buruzko informazioa.

n) Hiri planeamendua eta lurraldearen antolamendua, eta obra publikoen gauzatzea, foru lege honetan eta horiei buruzko gainerako arauetan ezarritakoarekin bat.

ñ) Administrazio Publikoak berak prestatutako informazio geografikoa, ekonomikoa eta estatistikoa, horren zabalpena garrantzitsua bada, adieraziz zein diren erabilitako iturriak, ohar metodologikoak eta ereduak.

o) Zerbitzu publikoen kalitatearen gaineko ebaluazioen emaitzei buruzko informazioa, baita politika publikoen eragin sozialaren ebaluazioaren emaitzei buruzkoa ere.

p) Administrazio publikoen baimena, kontrola edo fiskalizazioa eskatzen duten egintza administratiboak gauzatzea ahalbidetzen duten baimen administratiboak, lizentziak, erantzukizuneko aitopenenak eta bestelako egintza administratiboak, baldin eta zuzeneko eragina badute jabari publikoaren kudeaketan edo zerbitzu publikoen ematean.

q) Sozietate publikoak, fundazio publikoak eta Administrazio Publikoarekin lotutako zuzenbide publikoko entitateak sortzeari edo horien funtzionamenduari buruz Nafarroako Gobernuak hartzen dituen erabakiak.

r) Langileak aldi baterako kontratatzeko zerrendak, eta prestakuntza eta/edo igoera prozesuetan sortzen direnak, izangai bakoitzak aukera izan dezan unean-unean zer postutan dagoen jakiteko.

s) Ebazpen administratiboak eta judizialak, garrantzi publikoa izan dezaketenak edo jarduketa irizpideak ezartzen dituztenak Administrazio Publikoarentzat, adieraziz, hala behar duenean, ea bide administratiboa amaitzen duten eta irmoak ote diren. Jendaurrean jarriko dira, horietatik datu pertsonal guztiak kendu ondoren.

t) Kide anitzeko organoen erabakien laburpenak, eta kide bakarreko organoen erabakienak, baldin eta, esleiturik duten jarduerarengatik, oro har herritarrentzat garrantzitsutzat jotzen den informazioa izan badezakete. Publizitate hori ez da aplikatuko Nafarroako Gobernuaren bilkurak prestatzeko organoen jardueretan, ezta bilkuretako jardueretan ere.

u) Maizen eskatzen den informazioa.

v) Indarreko araudiarekin bat jakitera eman beharreko ingurumeneko informazioa, eta, oro har,

arauak beharturik zabaldu beharreko informazio guztia.

w) Erakundeen publizitate kanpainetan egindako gastu publikoa.

x) Enplegatu publikoek jasotako ordainsariei buruzko informazio orokorra, ordainsari-tarteen, ordainsari-mailen eta lanpostuen arabera antolatutarik.

y) Herritarren interesekotzat jotzen den beste edozein informazio publiko.

**14. artikulua.** Informazio publikoaren berrerabilera.

1. Informazio publikoa berrerabil dadila sustatuko du Administrazio Publikoak. Hauxe ulertuko da "berrerabilertzat": Administrazio Publikoaren esku dauden eta erabilera librekoak diren datuak merkataritzako helburuetarako edo bestelakoetarako erabiltzea, betiere erabilera hori ez bada Administrazioaren jarduera publiko bat, eta baldin eta aplikatzekoa den Estatuaren oinarritzko legeriarekin bat erabiltzen badira, eta, zehazki, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko araudiarekin bat.

2. Honako helburu funtsezko hauek bilatuko ditu berrerabilera:

a) Administrazio Publikoaren esku dauden erabilera libreko datu guztiak argitaratzea.

b) Herritarrei bidea ematea hobeki ezagut dezaten sektore publikoaren jarduera.

c) Datu horietan oinarritutako informazio produktu eta zerbitzuak sortzeko erraztasunak ematea.

d) Datuak erabiltzeko erraztasunak ematea, enpresa pribatuek balio erantsiko informazio produktuak eta zerbitzuak eskain ditzaten.

e) Merkatuko lehia erraztea, horren faltsutzea mugatuz.

3. Ondorengo artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, Administrazio Publikoak sustatuko du, oro har, datuak libreki berrerabiltzea, aldez aurreko eskaera egin beharrik gabe eta berrerabiltzeko ereduzko lizentziarik eman beharrik gabe.

**15. artikulua.** Berrerabiltzeko baldintzak.

1. Erregelamenduz, arautuko da zer baldintzatan egonen den datu batzuk berrerabiltzeko aukera, betiere baldintza horiek justifikaturik baldin badaude. Hala, besteak beste, aurreikusten ahal da zer baldintzatan baimenduko den berrerabiltzea, datuen erabilera egokia izan dadila, datuak

ez daitezela aldatu edo azken eguneraketaren iturria eta eguna adieraz daitezela.

2. Baldin eta, erregelamenduz aukeratuko balitz datu batzuen berrerabilera ereduzko lizentziak ematearen menpe jartzea, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzko legeriako irizpideetara eta gutxieneko edukira egokituak lirateke lizentzia horiek.

## II. KAPITULUA

### Gardentasuna kudeaketa administratiboan

**16. artikulua.** Gardentasuna sustatzea kudeaketa administratiboan .

Administrazio Publikoak aktiboki sustatuko du gardentasuna kudeaketa administratiboan. Ondorio horietarako, Administrazio Publikoaren behar-tzen da bere oinarriko jarduketa eremuetan garrantzitsuenekotzat jotzen den informazioa herritarren eskura izatea denbora guztian, esaterako hauen gainekoa: kontratu publikoak, zerbitzu publikoen esleipenak, elkarlan-hitzarmenak, dirulaguntzak eta lurraldearen antolamendua eta hiri-gintza.

**17. artikulua.** Gardentasuna kontratazio publikoan.

1. Batez ere Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez antolatuko da gardentasuna kontratazio publikoan. Ataria Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen bidez sortu zen. Atari hori ez da izan bakarrik lizitazioei publizitatea emateko bitarteko ofizial bat, informazioa emateko funtsezko tresna bat ere izan da, eta, informazio horretan, honako hauek adierazi beharko dira, besteak beste:

a) Entitate eta kontratazio organoari buruzko informazio orokorra, esate baterako, harremanetarako helbidea, telefono eta fax zenbakiak, posta helbidea eta posta elektronikoen kontua.

b) Abian diren lizitazioei buruzko informazioa. Eskuragarri egonen dira kontratua gauzatzeko baldintza guztiak eta, behar denean, gainerako dokumentazio osagarria.

c) Honako hauei buruzko informazioa: programatutako kontratuak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako lizitazioak eta kontratazioa egoki kudeatzeko beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen den beste edozein.

d) Maiz egiten diren galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.

2. Administrazio Publikoak sustatuko du hura erabiltzea eta herritarren artean zabaltzea, kontratazioaren arloan gardentasuna bermatzeko, eta

sustatuko du haren bidez herritarren parte-hartzea eta laguntza bidera daitezela.

3. Kontratazioaren edukiarengatik eta helburuarengatik ahal denean, Administrazio Publikoak, kontratua esleitzeko irizpideen artean, honako hau sartuko du: lizitazioileek software askeko tresnak ekartzearen balorazioa.

4. Administrazio Publikoak sarbide libreko datu-base bat sortuko du, non enpresekiko kontratuen informazio eguneratua bilduko baita. Datuek islatuko dute enpresa bakoitzak zenbat kontratu dituen Administrazioarekin, zer proiektu edo zerbitzu duen esleitua, esleipenaren aurrekontua eta zer departamentuk egin duen esleipena.

**18. artikulua.** Gardentasuna zerbitzuen esleipenean.

1. Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearekin bat arautuko da zerbitzuen esleipena; hortaz, arlo horretako gardentasuna Nafarroako Kontratazioaren Atariaren bidez antolatuko da.

2. Nolanahi ere, publikotzat jotzen diren zerbitzuen esleipenen gardentasunak eskatzen du zerbitzu emaileek bermatzea herritarrei behar den informazioa emanen dietela, kalitatezko zerbitzuak eskatzeko aukera izan dezaten eta, behar denean, beren eskubideak erabiltzekoa.

3. Ondorio horietarako, Administrazio Publikoak, klausula administratiboan pleguetan edo balio bereko dokumentuetan, behar diren aurreikuspenak sartuko ditu herritarrei ondoko eskubideak, gutxienez, bermatzeko:

a) Zerbitzu publikoa emateko baldintzei buruzko informazioa lortzea.

b) Zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko kexak aurkezteko. Arrazoiak emanda eta bakarka erantzun beharko dira.

c) Zerbitzua ematearekin loturik, esleipen hartzailearen bulegoetan aurkezten dituzten dokumentu guztien kopia zigilatutako jasotzea.

d) Administrazioari exijitzea erabil ditzala ikuskatzeko, kontrolatzeko eta, behar denean, zehatzeko ahalmenak, zerbitzuak ematean dauden iruzentzeko.

e) Zerbitzua erabiltzean berdintasun printzipioa errespetatzen duen tratua jasotzea, bazterketa zuzeneko nahiz zeharkakorik gabe, arrazoa edonolako izanik ere: jaiotzarekin lotutakoa, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal edo soziala.

**19. artikulua.** Gardentasuna elkarlan-hitzarmenetan.

1. Funtsean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bidez antolatuko da gardentasuna elkarlan-hitzarmenetan. Administrazioak sinatutako hitzarmen eta akordioen publizitaterako, gardentasunerako eta kontrolerako tresna izanen da.

2. Nolanahi ere, Nafarroako Hitzarmenen eta Itunen Erregistroaren arautzeak bermatu beharko du herritarrek dohainik kontsultatzea, bai bertaratu bai telematikoki, Erregistroan inskribatutako hitzarmen eta itunen zerrenda, baita haietan egingadako aldaketak ere, eta, horretaz gain, horietako bakoitzari buruzko datu hauek:

a) Hitzarmenaren edo itunaren alderdi sinatzaileak, horien ordezkariak eta ordezkaritza horren izaera.

b) Hitzarmenaren edo itunaren helburua, eta kasua bada, konprometitutako jarduerak, horien ardura duten organoak eta finantzaketa.

c) Indarraldia eta indarrean izateko baldintzak.

d) Halakorik egin bada, hitzarmena edo ituna argitaratzeko tokia.

e) Hitzarmenak edo itunak indarrean zirenean izandako aldaketek zer xede zuten, eta aldaketa horien datak.

**20. artikulua.** Gardentasuna diru-laguntzekin lotutako jardueran.

1. Administrazio Publikoak gardentasuna bermatuko du diru-laguntzekin lotutako jardueran, eta, horretarako, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian batez ere, honako informazio hau argitaratuko du, sustapen jarduerak egiten dituen organo bakoitzeko:

a) Aurrekontu-ekitaldian aurreikusirik dituen laguntzen edo diru-laguntzen deialdien zerrenda eguneratua, adieraziz zer zenbateko erabiliko diren, helburua edo xedea eta onuradun izan daitezkeen deskribapena.

b) Ondokoak jasoko dituen zerrenda bat: diru-laguntza bakoitza aplikatuz lortu nahi diren helburuak eta onura publikoko edo sozialeko eraginak, horiek erdiesteko egokitzat edo beharrezkotzat jotzen den epea, aurreikusitako guztirako kostuak eta finantzatzeko beste iturririk izan daitezkeen edo ez.

c) Diru-laguntzen bidez lortu nahi diren helburuak merkatuan eraginik baldin badute, arrazoiturik azalduko da, batetik, diru-laguntza horiek zer neurritan dauden bideraturik hutsak zuzentzera

(hutsak identifikatuko dira) eta, bestetik, arrazoitu-ko da haren eraginek zer neurritan ekarriko duten ahalik eta distorsio txikiena merkatuan.

d) Laguntzen edo diru-laguntzen deialdien testu osoa.

e) Laguntza edo diru-laguntza horien esleipenak, horiek jakinarazi edo argitaratu eta ondoko hilabetean, honako hauek bakarrik adieraziz: onuradunak, baldin eta posible bada indarreko legeriarekin bat, laguntzen zenbatekoa eta dagokien araudiaren identifikazioa. Halaber, urtero, aurreko ekitaldian esleitutako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da.

f) Publizitatea eta konkurrentzia sustatu gabe esleitutako diru-laguntzak, salbu Administrazio Publikoak isilpekotzat deklaraturako espedienteen kasuan.

2. Aurrekoa gorabehera, diru-laguntzekin lotutako jardueren arloan informazioa publikatzean, foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako legeetan jasotako mugak errespetatuko dira.

**21. artikulua.** Gardentasuna lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan.

1. Nafarroako Gobernuak Interneten duen atariaren bidez antolatuko da; batez ere, lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloko gardentasuna. Han jasoko dira lurraldea antolatzeko tresnak eta hirigintzako planak, eta, bestalde, hartan integratuko da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean jasotako Hirigintza Planeamenduaren Erregistroa.

2. Nolanahi ere, Hirigintza Planeamenduaren Erregistroaren arautzeak bermatu behar du herritar guztiek dohainik kontsultatu ahal izatea, bertaratu nahiz modu telematikoa, Nafarroako hiri-antolamendurako irudiekin lotutako informazioa, eta, gutxienez, honi buruzko informazioa emanen du:

a) Udallerri bakoitzeko egitura orokorra.

b) Lurzoruaren sailkapena eta kalifikazioa.

c) Lurzorurako aurreikusitako antolamendua, behar den xehetasun mailarekin.

d) Herri bakoitzean planteatutako azpiegiturak.

e) Hirigintzako araudia.

### III TITULUA

#### Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

##### I. KAPITULUA Arau orokorrak

**22. artikulua.** Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

1. Herritar guztiek dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, dela norberaren izenean eta bakarka eskaturik, dela herritarrak bildu edo ordezkatzan dituzten legez eraturiko erakundeen izenean, aurretik eskatuta eta foru lege honetan finkatzen diren mugak ezarrita.

2. Eskubide hori erabiltzeko, ez da beharrezkoa izaneren eskaeran arrazoiak ematea edo foru lege hau aipatzea.

**23. artikulua.** Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen mugak.

1. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatuko da, bakarrik, informazioa ematearen ondorioz kalteren bat sortzen baldin bazaio honako hauetako bati:

a) Segurtasun publikoari.

b) Administrazio Publikoak tramitatutako prozeduren sekretuari edo konfidentzialtasunari, baldin eta konfidentzialtasun edo sekretu hori lege mailako arau batean jasota baldin badago.

c) Arau-hauste penal, administratibo edo diziplinazkoen prebentzioari, ikerketari edo zehapenari.

d) Epaitegietan tramitatzen ari den prozedura bateko edo prozedura judizial bati lotutako kausen edo gaien osotasunari, aldeek prozesu judizialean izan beharreko berdintasunari, eta babes judizial eraginkorrari. Kausa edo gaia prozedura judizial bati lotuta baldin badago, edo epaitegietan tramitatzen ari baldin bada, tramitatzen ari den organo judiziala identifikatu beharko da.

e) Zaintza, ikuskapen eta kontrol lan administratiboak.

f) Konstituzio-eskubide hauei: intimitate pertsonal edo familiarerako eskubidea, segurtasun pertsonalerako eskubidea, norberaren irudirakoa, ohorerako eskubidea, komunikazioen sekreturako eskubidea, askatasun ideologikorako edo erlijiosorako, afiliatorako eskubidea, errugabetasun-presuntziorako eskubidea, sekretu profesionalerako eta, oro har, Espainiako Konstituzioak aitortu eta babesten dituen funtsezko eskubideak.

g) Datu komertzial eta industrialen konfidentzialtasunari, konfidentzialtasun hori lege mailako

arau batean edo Europar Batasuneko araudian aitortuta baldin badago legezko interes ekonomikoak babesteko, konfidentzialtasun estatistikoa eta sekretu fiskala mantentzeko interes publikoa barne.

h) Jabetza intelektualerako edo industrialerako eskubideei. Titularrak informazioa hedatzeko adostasuna eman badu, kasu hau ez da aintzat hartuko.

i) Datu pertsonalen babesari, baldin eta interesdunak ez badu adostasunik eman datu horiek tratatu edo jakinarazteko. Nolanahi ere, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoari jarraituko zaio.

j) Adingabeen eskubideei.

k) Legezko interes partikularrei.

l) Ingurumenaren edo ondare historiko edo kulturalaren babesari, kasuan kasuko lege arau-emaeletan aurreikusitakoarekin bat.

m) Lege mailako arauak babestutako informazio guztiari.

2. Eskubide horri ezarritako mugak proportzionalak izaneren dira, xedea eta babesteko asmoa kontuan hartuta. Nolanahi ere, era murriztailean eta justifikatuan interpretatu beharko dira, eta informazioaren hedapena justifikatzen duen gogoiko interes publiko bat ez dagoen heinean aplikatuko dira. Aipatutako muga horiek hedabideek informazio sinesgarria emateko duten askatasunerako eskubidearekin ponderatuko dira, eta kaltetuen identitatea babestuko da, batez ere, adingabeena.

3. Administrazio Publikoak ezin izaneren ditu 1. idatz-zatiko mugak alegatu herritarrari galarazteko harengan modu pertsonalean, partikularrean eta zuzenekoan eragina duen dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko, are gutxiago galarazpen horrek herritarraren legezko eskubide eta interesak ukitzen baditu.

4. Informazioa eskuratzeko eskubidearen mugen aplikazio-epea legeek ezarritakoa izaneren da, eta ez gehiagokoa, edo neurri hori justifikatzen duten arrazoiek dirauten bitartekoa.

5. Artikulu honetan finkatutako mugak aplikatzen ahalko dira, orobat, foru lege honen II. tituluaren aurreikusita dauden hedatzeko betebeharrak dagoenez.

**24. artikulua.** Datu pertsonalen babesa.

1. Eskatzailearen beraren datu pertsonalak dituen informazio publikoa eskuratzeko eskaeren ebazpenerako, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Datu intimoak dituen informazio publikoa edo hirugarrenen bizitza pribatua ukitzen duen informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ukatuko dira, non eta, eskaerarekin batera, ukituaren berriazko adostasun idatzirik aurkezten ez den, edo hori baimentzen duen lege bat ez dagoen.

Horren ondorioetarako, datu intimoak hartuko dira, ideologiari, afiliazio sindikalari, erlijioari, sinesmenei, arraza-jatorriari, osasunari eta sexualitateari buruzkoak.

3. Hirugarrenen datu pertsonalak dituen informazioa eskuratzeko eskaerak ontzat hartuko dira, zein organo edo entitateari eskatzen zaion informazioa, haren antolaketari, funtzionamenduari eta jardura publikoari lotuta baldin badago zuzenean, eta, betiere, eskatutako datuak intimoak hartzen ez badira edo bizitza pribatuaren inguruak ez badira. Nolanahi ere, ez da informaziorik emanen inguruabar bereziak daudela irizten denean, datu pertsonalen babesa informazioa hedatzeko interes publikoaren gainetik dagoelako.

4. Datu pertsonalen babesa informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen gainetik egonen da baldin eta ebazteko eskumena duen organoak uste badu eskubideen arteko gatazka dagoela, eta, hori dela-eta, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea begiratu behar dela.

#### **25. artikulua.** Informazio partziala eskuratzea.

1. Eskatutako informazioa 23. eta 24. artikuluetan aipatutako mugaren baten pean baldin bada, ahal den guztietan informazio partziala emanen da, mugatutako informazioa kenduta, salbu eta horren ondorioz informazioa eraldatua, nahasgarria edo zentzugabea gelditzen bada.

2. Hirugarrenen datu pertsonalak dituen informazioaren kasuan, informazioa emanen da informazioaren anonimotasuna bermatzen denean modu eraginkor batean, deusetan galarazi gabe foru lege hau gidatzen duen gardentasun-printzipioa.

3. Informazio partziala ematen denean, bermatu beharko da mugatutako informazioaren erreserba, eta erreserba horren ohartarazpena egiten dela eta jasota gelditzen dela.

## **II. KAPITULUA**

### **Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko prozedura**

#### **26. artikulua.** Informazio publikoa eskatzea.

1. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak informazioa duen unitate organikoari edo entitate-

ari bidali beharko zaizkio, eta horiek artikulua honekin xedatutakoaren arabera tramitatuko dira. Administrazio Publikoaren eremuan, informazio eskaerak ebazteko eskumena kasuan kasuko informazioa duten unitateetako hierarkia-buruek izanen dute, baina, betiere, esleitua beharko dute, egitura organikoak arautzen dituzten arauekin bat, ebazteko eskumena.

2. Administrazio Publikoak berarentzat erreserba dezake ebazteko ahalmena, baldin eta informazio publikoa eskuratzeko eskaera jasotzen duena bada sozietate edo fundazio publiko bat, hari lotutako eskubide publikoko entitate bat, eginkizun publikoak edo ahalmen administratiboak dituen norbait edota haren agintepean zerbitzu publikoak ematen dituen norbait. Horrelako kasuetan, zehaztuko da zein diren departamentu bakoitzean horrelako eskaerak ebazteko eskumena duten organoak.

3. Eskaera egiteko, edozein bide erabiltzen ahalko da, baliabide elektronikoak barne, honako hauek jasotzeko aukera bermatzen badute:

a) Eskatzailearen nortasuna.

b) Eskatzen den informazio zehatza, baina ez da nahitaezkoa dokumentu edo espediente jakin bat identifikatzea.

c) Kasua bada, eskatutako informazioa eskuratzeko nahiago den modua edo formatua.

d) Harremanetarako helbide erabilgarri bat, eskaera dela-eta egiten diren komunikazioak bidaltzeko.

4. Eskatzaileak, nahi izanez gero, informazioa eskatzeko arrazoiak azal ditzake. Dena dela, ez da zilegi izanen arrazoi horiek eskatzea.

#### **27. artikulua.** Eskaera zehazkabeak.

1. Informazio publikoa eskuratzeko eskaera zehazkabea baldin bada, eskatzaileari eskatuko zaio zehaztu dezala, eta horretarako, hamar egun balioduneko epea emanen zaio gehienez. Bitartean, ebazteko gehieneko epea eten egingen da. Zuzendu ezean, eskatzaileak atzera egin duela joko da. Helburu horretarako, laguntza emanen zaio bere informazio eskaera ahalik eta azkarren zehaztu dezan.

2. Eskatzailea atzera egintzat jotzeko eta eskaera artxibatuzko deklarazioa ebazpen bidez egingen da, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio, beste eskaera bat aurkezteko aukera izan dezan, baina nahi duen informazioa edo eskaera zehaztuta.



**28. artikulua.** Eskaerak ezesteko arrazoiak.

Honako kasu hauetan, eskaeren tramitazioa ezetsiko da, arrazoiak emanda:

a) Informazioa eskuratzeko eskubidetik salbuetsita dagoen informazioa eskatu bada. Zehazki, salbuetsita geldituko dira, besteak beste, kontsulta juridikoak eta txosten edo irizpenak emateko eskaerak.

b) Eskaera zuzendu zaion entitateak ez daukan informazioa emateko eskaerak. Kasu horretan, informazioa duen entitatea zein den jakiterik bada, eta foru lege honen aplikazio eremuaren barrenean badago, hari igorriko zaio eskaera, eta entitate horrek tramitatu beharko du. Eskatzaileari igorpen horren berri emanen zaio. Eskaera informazioaren arduradunari bidaltzea ezinezkoa denean, tokiko edo estatuko administraziokoa delako, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik kanpokoa, eskaera zuzendu zitzaion arduradunak zuzenean adierazi behako dio eskatzaileari, bere iritziz, nori eskatu behar dion informazioa, eskaera zein helbidetara igor dezakeen aipatuz, informazio moduan.

c) Nabarmen arrazoigabekoak edo errepikagarriak izateagatik, gehiegizkoak jotzen diren eskaerak.

d) Orokorregiak diren eskaerak, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Prestatze faseko dokumentazioa, lantzen ari den materiala edo bukatu gabe dauden dokumentu edo datuak, administrazio espedientearen parte ez direnak, eskuratzeko eskaerak. Bukatu gabe dauden datutzat jotzen dira Administrazio Publikoaren barrenean oraindik lantzen ari diren datuak, haiei buruz inolako irizpen, txosten edo onespenik eman ez denean. Arrazoi horregatik ezesten baldin bada eskaera, ebazteko eskumena duen organoak ezespenean jakitera emanen du zein unitate ari den prestatzen material hori, eta eskatzaileari adieraziko dio noizko aurreikusten den bukatzea lan-keta hori.

f) Garrantzi edo interes publikorik ez duten barne komunikazioei buruzko eskaerak izatea.

**29. artikulua.** Hirugarrenek parte hartzea.

1. Eskaeretako informazioa foru lege honen 23. eta 24. artikuluetan aipatzen diren hirugarrenen eskubide edo interesen gainekoa baldin bada, ebazteko ardura duen organoak ukituei igorriko die eskaera, hamabost eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten, betiere horien alegazioak erabakigarriak izan badaitezke ebazteko orduan.

2. Ukituari eskaera bidaltzearekin batera ebazteko epea eten egingen da, harik eta alegazioak jaso arte edo jakinarazten denetik aurrera kontatu beharreko hamabost egun balioduneko epea bukatu arte. Hirugarrenak erantzuten ez badu eskatutako epean, ulertuko da ez dagoela ados eskatutako informazioa ematearekin.

3. Organo eskudunak, hirugarrenek berariaz edo ustez adierazitakoa oinarri hartuta, eta foru lege honetan jasotakoari jarraikiz, bidezkotzat jotzen duen ebazpena emanen du.

**30. artikulua.** Eskaera ebazteko epea eta isiltasunaren esanahia.

1. Kasu bakoitzean eskumena duen organoak lehenbailehen eman beharko du eskatutako informazio publikoa, edo, bestela, lehenbailehen jakinaraziko dizkio eskatzaileari informazio hori ukatzeko arrazoiak, beranduenik berariazko lege mailako arauetan ezarritako epeetan, eta, aurreikuspenik izan ezean, epe hauetan:

a) Oro har, ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu eta hamabost eguneko epean, gehienez.

b) Ebazteko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu eta hogeita hamar eguneko epean, baldin eta, informazioaren bolumena eta konplexutasuna ikusita, ezinezkoa bada lehen adierazitako epean ematea. Kasu horretan, hamar eguneko epean eskatzaileari adierazi beharko zaizkio ebazpena epe horretan ematea justifikatzen duten arrazoiak.

2. Ebatzi eta jakinarazteko ezarritako gehiengo epean berariazko ebazpenik jasotzen ez bada, ulertuko da eskaera baietsi egin dela, salbu eta lege mailako arau batek berariaz ezartzen badu eskatutako informazioa, dena edo parte bat, ukatu egin behar dela.

3. Eskaerak isiltasun administratiboaren bidez baiesten direnean, Administrazio Publikoak behartuak egonen dira eskubide osoa edo partziala aitortzen duen berariazko ebazpena eman eta jakinaraztera, foru lege honetan jasotakoaren arabera.

**31. artikulua.** Ebazpena.

1. Ebazpena idatziz formalizatuko da, eta eskatzaileari eta, kasua bada, ukitu den hirugarren pertsonari ere jakinaraziko zaio. Eskaera osorik edo partez baietsiz gero, informazioaren forma edo formatua adieraziko da, eta, bidezkoa denean, baita informazioa eskuratzeko epea eta inguruabarrak ere. Eskubidearen eraginkortasuna eta informazio-

aren osotasuna bermatu beharko dira, ahalik eta epe laburrenean.

Ebazpenak baimena ematen badu informazioa ematearen aurka azaldu den hirugarren bat ukitzen duen informazio bat osorik edo partez eskuratzeko, informazioa eskuratzeko ahalik da, bakar-bakarrik, errekurritzeko epea bukatu eta hirugarren ukituak bidezko errekurtsorik aurkeztu ez duela ikusita, orduan irimo bilakatuko baita ebazpena. Informazioa eskuratzeko eskubidearen etendura berariaz adieraziko da ebazpenean.

2. Informazioa eskuratzeko osorik edo partez ukatzen duten ebazpenak arrazoituak izanen dira, baita hirugarren ukituren batek parte hartu arren informazioa eskuratzeko baimentzen dutenak, eta informazioa eskatutako forman edo formatuan ez beste batean eskuratzeko aurrekusten dutenak ere bai.

Informazioa badagoela edo ez dagoela aipatze hutsagatik informazioa eskuratzeko eskubideari ezarritako mugaren bat urratzen bada, inguruabar hori adierazi beharko da.

3. Informazioa ukatzeko arrazoia hirugarrenek jabetza intelektualerako edo industrialerako eskubidea edukitzea baldin bada, eskubide horien titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa zein den adierazi beharko da, ezaguna izanez gero, edo, bestela, zeinek laga duen eskatutako informazioa.

4. Ebazpenean beti adieraziko dira haren aurka jar daitezkeen errekurtsio administratiboak, eta hala badagokio, bidezko den administrazioarekiko auzi-errekurtsioa.

5. Eskatutako informazioaren ezaugarriek horretarako bidea ematen badute, ebazpenaren jakinarazpenarekin batera helaraziko da informazioa.

**32. artikulua.** Informazioaren forma edo formatua.

1. Organo eskudunak eskatu zaion forma edo formatu berean eman beharko du informazioa, non eta honako inguruabarren bat gertatzen ez den:

a) Lehenagotik, informazio hori beste forma edo formatu batean zabaldua izatea, eta eskatzaileak hori errazki eskuratzetik badu. Kasu horretan, eskatzaileari adierazi beharko zaio non eta nola eskura dezakeen informazio hori, edo bestela, daukan formatuan helaraziko zaio.

b) Organo eskudunari zentzuzkoa iruditzea informazioa beste forma edo formatu batean jartzea eskatzailearen eskura, eta hori egoki justifikatzen badu.

Informazioa *in situ* eskuratzeko jatorrizko euskarria galtzea edo hondatzea ekar badezake, kopia formatu jakin batean egitea ezinezkoa denean ez dagoelako ekipamendu teknikorik eskura, edo informazioa eskatutako modalitatean emateak jabetza intelektualerako eskubidea urratu baldin badezake, bidezkoa izanen da informazioa beste forma edo formatu batean ematea eskatzaileari.

Orobat, bidezkoa izanen da eskatzaileari beste forma edo formatu batean ematea informazioa, baldin eta errazagoa edo ekonomikoagoa bada altxor publikoarentzat.

2. Horren ondorioetarako, Administrazio Publikoak ahaleginak egiten ditu berak daukan informazio publikoa, baita beste subjektu batzuek bere izenean daukatena ere, telekomunikazio informatikoen edo beste baliabide elektronikoen batzuen bidez aise eskuratu eta erreproduzitzeko moduko forma edo formatuetan gordetzeko.

3. Organo eskudunak ebazten baldin badu informazioa eskatutako forma edo formatu berean ez ematea, ez osorik ezta partez ere, eskatzaileari horren berri eman beharko dio, informazioa eskuratzeko eskubidea aitortzen duen ebazpen berean, eta, horrekin batera, adieraziko dio zein formatu edo formatutan eman dezakeen eskatutako informazioa.

**33. artikulua.** *In situ* eskurapenen doakotasuna, eta tasa eta prezioak.

1. Honako zerbitzu hauek doakoak dira:

a) Foru lege honen 13. artikuluan aipatzen den informazioa eskuratzeko, baita bestelakoa ere, kontraktorik xedatzen ez bada.

b) Eskatutako informazioa gordetzen den tokian berean aztertzea.

c) Informazioa posta elektronikoen bidez edo balio bereko beste sistema elektronikoen baten bidez ematea.

2. Artxibo, liburutegi eta museoek kasuan, berariazko legediak xedatutakoari jarraikiko zaio doakotasunari edo ordainketari dagokionez.

3. Kopia egiteagatik eta informazioa jatorrizkoa ez den beste formatu batera eramateagatik diru-kopuru bat ordaintzea eska liteke, baina lan horien kostua gainditu gabe.

Administrazio Publikoak tasak ezartzeko, tasa eta prezio publikoei buruzko foru legedian ezarritakoari jarraikiko zaio.

4. Informazioa gordetzen duten unitate, organo edo entitateek eskaera bakoitzari dagozkion tasa eta prezioen zerranda prestatu, argitaratu eta

informazio publikoaren eskatzaileen eskura jarriko dute, inolako ordainketarik egin behar ez den kasuak ere zehaztuta.

#### IV. TITULUA

##### Herritarren parte-hartzea eta elkarlana

#### I. KAPITULUA

##### Oinarrizko baldintzak

**34. artikulua.** Herritarren parte-hartzea eta elkarlana bultzatu eta sustatzea.

1. Administrazio Publikoak herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatuko ditu, dela bakarka eta norberaren izenean, dela herritarrak bildu eta ordezkatzeko legez eraturiko erakundeen izenean eta haiek ordezkatzuz. Horretarako, harremana bermatzen duten baliabide edo tresna egokiak erabiliko dira.

2. Unibertitateen, lanbide elkargoen eta aholku kontseiluen parte-hartzea eta elkarlana ere sustatuko ditu Administrazio Publikoak, baita bere eskumenak erabiliz sustatzen dituen jarduketentzat egokiak diren beste entitate eta erakunde batzuen ere.

3. Administrazio Publikoak herritarren parte-hartzea eta elkarlana sustatuko ditu, hala barreneko eremuan nola kanpokoan, eta, horretarako, parte hartzeko eta laguntzeko dauden tresnen berri emateko kanpainak sustatuko ditu, eta haiek erabiltzeko prestakuntza planak antolatuko.

**35. artikulua.** Plan eta programa orokor batzuk prestatzeko orduan herritarrek parte hartzeko bermeak.

1. Plan eta programa orokor batzuk prestatu, aldatu eta berrikusteko prozesuetan herritarrek parte-hartze benetakoa eta eraginkorra dutela bermatzeko, Administrazio Publikoak aplikagarri diren prozedurak ezarri edo tramitatuko ditu, foru lege honen 5. artikuluan aitorturiko eskubideez baliatu ahal izatea begiratu du, eta, gainera, honako hauek ere bermatuko ditu:

a) Herritarrei informazio ematea plan eta programa orokorren proposamen guztiei buruz eta, kasua bada, haien aldaketa edo berrikuspenari buruz. Horretarako, ohar publikoak edo beste baliabide egoki batzuk erabiliko dira; esate baterako, erakundeen komunikazio-bideak eta baliabide elektronikoak.

b) Proposamen horiei buruzko informazioa ulergarria izatea, eta horren barrenean agertzea erabakitze-prozesu jakin batzuetan parte hartzeko eskubideari buruzko informazioa eta, orobat, iruz-

kinak edo alegazioak zein administrazio publiko eskudunetan aurkeztu behar diren ezagutzeko eskubideari buruzko informazioa.

c) Herritarrek eskubidea izatea jendaurreko aldiaren oharrak eta iritziak azaltzeko. Epe hori ez da hilabetetik beherakoa izanen inola ere, eta erakundeen komunikazio-bideak erabiliz iragarriko da, plan eta programa orokorrari buruzko erabakiak hartu baino lehen.

d) Erabaki horiek hartzean, behar bezala aintzat hartzea herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko prozesuaren emaitzak.

e) Herritarrek adierazitako oharrak eta iritziak aztertu ondoren, hartzen diren erabakien berri ematea herritar horiei, eta erabaki horiek hartzeko aintzat hartutako arrazoi eta kontuen berri, baita parte-hartze publikoaren prozesuari buruzko informazioa ere.

f) Oharren eta iritzien egileei modu arrazoituan eta zuzenean erantzutea.

2. Artikulu honetan aurreikusitakoak ez du inola ere ordezkatzeko, ezta kaltetuko ere, beste xedapen batzuetan ezarritakoa, baldin eta zabaldu egin badezake herritarrek parte hartu eta laguntzeko eskubideei buruz foru lege honetan aitorturikoa.

3. Artikulu honen aplikazio eremutik kanpora gelditzen dira honako hauek:

a) Presaz onesten edo tramitatzen diren plan eta programak.

b) Helburu bakarra antolaketa, prozedura edo antzekoak finkatzea dutenak.

c) Helburu bakarra segurtasun publikoa, larrialdietako babes zibila edo gizakien bizitza salbatzea duten plan eta programa orokorrak.

d) Prestatzeko eta onesteko berariazko araudia izateagatik, jendaurrean egoteko edo informazioa emateko egintza edo tramiteak finkatuak dituzten plan eta programa orokorrak.

#### II. KAPITULUA

##### Herritarren parte-hartzerako eta elkarlanerako tresnak

**36. artikulua.** Kontzeptua eta motak.

1. Herritarren parte-hartzerako eta elkarlanerako tresnak dira herritar guztiek gai publikoetan bazterkeriarik gabe parte hartu eta laguntzeko aukera gauzatzeko Administrazio Publikoak erabiltzen dituen baliabideak. Horren ondorioetarako, jasotako datuen arabera, gai publikoetan parte hartzeko eta laguntzeko zailtasun gehien izan

duten gizarte sektoreen inplikazioa sustatuko da aktiboki.

2. Herritarren parte-hartzea eta elkarlana gauzatuko dira herritarrek gai publikoetan duten inplikazioa errazteko balio duen edozein baliabide erabiliz, bereziki teknologia berrien bidez. Horretarako, Administrazio Publikoak:

a) Herritarrekiko elkarrizketa telematikoa sustatuko du, bi norabidekoa, eta Interneteko sare sozialetan eta gizarte-komunikaziorako gainerako baliabide egokietan parte hartuko du, hots, foroetan, blogetan, bideo-plataformetan eta beste web-baliabide batzuetan.

b) Komunikazio telematikoa egoki erabiltzeko behar diren tresnak, ezaupideak eta baliabide teknologikoak herritarren eskura jarriko ditu, beharrezkoak diren segurtasun eta sarrera mailak ezarrita.

c) Herritarrek modu telematikoan edo telefonikoan ematen dituzten iritziak arretaz entzunen ditu, haien eskakizunei azkar eta eraginkortasunez erantzunen die eta haien iritziak kontuan hartuko ditu erabakiak hartzeko orduan. Horretarako, egoki iruditzen bazaio, zenbait jarduera publikoren gainean *on line* inkestak egitea sustatzen ahalko du, emaitzen fidagarritasuna berma dezaketen sistematik erabiliz.

d) Herritarren komunikazioa eta elkarreragina sustatuko du telekomunikazio-gailu mugikorren bidez, eta, horretarako, Administrazioarekiko harremanetan horrelakoak erabiltzea bultzatuko du, gailu mugikorretarako egokitu du egun daraman teknologia, eta estaleremuaren hedadura ere sustatuko du.

3. Administrazio Publikoak parte hartzeko dauden baliabide guztiak antolatzea sustatuko du, batez ere Gobernu Irekia atariaren bitartez, horren sorrera foru lege honetan berean sustatzen baita, deusetan galarazi gabe beste bide batzuk sortu eta sustatzea, zenbait esparrutan Administrazioaren eta herritarren arteko elkarreragina errazteko.

**37. artikulua.** Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroa.

1. Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroa sortzen da eraginkortasun handiagoarekin antolatzeko herritarrek parte hartu eta laguntzeko tresna berariazkoago batzuen erabilera.

2. Foru lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko epean arautu eta abian jarriko da Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroa, non Administrazio Publikoaren eskumeneko

gai berariazkoei buruzko informazioa jaso nahi duten herritarrak eta herritarren entitateak inskribatzen ahalko diren borondatez, herritarrek parte hartu eta laguntzeko dauden tresna berariazkoetan aktiboki parte hartze aldera, foru lege honetan edo beste arau batzuetan aurreikusten direnetan hain zuzen.

**38. artikulua.** Parte hartzeko eta laguntzeko berariazko tresnak.

1. Herritarrek parte hartu eta laguntzeko berariazko tresnak dira eraginkorrak izateko parte-hartze prozesuan berean herritarren inplikazio handiagoa behar dutenak. Inplikazio hori bermatzen da, Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan inskribatuta egonda, Administrazio Publikoari laguntzeko eta parte hartzeko konpromisoa borondatez hartu duten herritarrengana eta herritarren elkarrekin joz.

2. Beste arau batzuetan aurreikus daitezkeen baliabideak deusetan galarazi gabe, honako berariazko tresna hauek erregelamenduz garatuko dira: kontsulta-foroak, herritarren panelak eta herritarren epaimahaiak, non, kasua bada, ondoko artikuluetan aipatutakoez gain, parte hartuko duten kasuko gaian adituak direnak eta 34.2 artikuluan aipatzen diren entitateak.

**39. artikulua.** Kontsulta-foroak.

Kontsulta-foroak politika publikoak aztertu eta haien gainean eztabaidatzeko guneak dira, non herritarren taldeek edo herritarren entitateek parte hartzen baitute, politika publiko baten ondorioak aztertu eta horien gainean gogoeta egiteko eta, orobat, politika horiek herritarren bizi-kalitatean izanen dituzten benetako ondorioen azterketa baloratiboak egiteko. Herritarren talde horiek demokratikoki hautatuko dira, Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan inskribaturik dauden artean, Administrazio Publikoak aurretik deialdia eginda.

**40. artikulua.** Herritarren panelak.

1. Herritarren panelak informazioa etengabe eta berehalakoan emateko guneak dira, Administrazioak aldi baterako sortzen dituenak, Administrazioak interes publikoko edozein gai buruz proposatzen dituen kontsultei erantzuteko, bereziki herritarren etorkizunerako aurreikuspenei buruz.

2. Paneletan, herritarren eta herritarren entitateen gutxieneko kopuru batek hartuko du parte. Parte-hartzaileak Administrazioak hautatuko ditu, Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan inskribatuta dauden subjektuen artean, panelaren xedeko gaiari dagokion arloan inskribatuta daudenetik hain zuzen.

**41. artikulua.** Herritarren epaimahaiak.

Herritarren epaimahaiak Administrazio Publikoak sorturiko taldeak dira, eta haien helburua da Administrazioaren ekintza, programa edo proiektu jakin baten ondorioak aztertzea. Herritarren epaimahaietan gehienez hamar lagunek parte hartuko dute, erdiak herritarrek, eta beste erdiak herritar entitateen ordezkariak. Administrazioak hautatuko ditu, Herritarren Parte-hartzerako eta Elkarlanerako Erregistroan, mahaia sortzea ekarri duen gaiari dagokion arloan, inskribatutako subjektuen artetik.

**III. KAPITULUA****Parte hartzeko eta laguntzeko berariazko eskubideak**

**42. artikulua.** Politika publikoak zehazteko prozesuetan parte hartzeko eta laguntzeko eskubideak.

1. Herritarrek eskubidea dute politika publikoak prestatzeko prozesuan parte hartu eta laguntzeko.

2. Horretarako, Administrazio Publikoak behar diren baliabideak ezarriko ditu herritarrek urteko eta urte anitzeko programen diseinuan eta prestatketan lagundu dezaten. Programa horietan adieraziko dira lortu nahi diren helburu zehatzak, helburuak lortzeko behar diren jarduera eta baliabideak, horretarako kalkulatu den denbora, eta programa gauzatzeko ardura duten pertsonak edo organoak.

**43. artikulua.** Administrazio Publikoaren zerbitzuen kalitatea eta politika publikoak ebaluatzeko prozesuetan parte hartzeko eta laguntzeko eskubidea.

1. Herritarrek eskubidea dute kontsulta dakien aldian behin zenbateraino dauden gustura zerbitzu publikoekin eta Administrazio Publikoak kudeatzen dituen jarduerekin.

2. Eskubide hori erabiliko da foru lege honetan eta Administrazio Publikoaren zerbitzuen kalitatea eta politika publikoak ebaluatzeko foru araudian ezarritakoaren arabera.

**44. artikulua.** Xedapen orokorrak prestatzeko prozesuetan parte hartzeko eskubidea.

1. Herritarrek eskubidea dute xedapen orokorrak prestatzeko prozesuetan parte hartzeko, iradokizunak igorri. Parte-hartze horrek, berez, ez du ekarriko prozeduran interesdun gisa hartzea.

2. Horretarako, Administrazio Publikoko departamentu bakoitzak xedapen orokorrak prestatzeko abian diren prozeduren zerrenda argitaratuko du, bakoitzaren xedea eta tramitazio egoera zehaztuta.

3. Herritarrek noiznahi bidaltzen ahalko dituzte iradokizunak, betiere entzunaldia emateko edo jendaurrean egoteko tramitea baino lehen, edo, kasua bada, Idazkaritza Tekniko Nagusiaren azken txostena baino lehen.

4. Proiektuaren testua idazteko ardura duen organoak kontuan hartuko ditu jasotzen diren iradokizun edo gomendioak, eta onartu edo atzera botatzen ahalko ditu. Organoaren jarduketa hori Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian argitaratuko den azken txosten batean jasoko da.

5. Parte hartzeko modu honek ez ditu ordeztuko entzunaldia emateko edo jendaurrean egoteko tramiteak, indarreko araudiaren arabera tramite horiek aginduzkoak diren kasuetan.

**45. artikulua.** Erregelamenduzko ekimenak proposatzeko eskubideak.

1. Legezko bizilekua Foru Komunitatean duten herritarrek, banaka eta nork bere izenean, eskubidea dute Administrazio Publikoari aurkezteko beren legezko eskubide eta interesen gaineko arloei buruzko erregelamenduzko ekimenak tramitatzeko proposamenak, Administrazio Publikoaren eskumeneko gaien gainekoak.

2. Nafarroako Foru Komunitatean legegintzako herri-ekimena arautzen duen foru legediak salbuesten dituen gaiak garatzeko xedapenei buruzko proposamenik ez da onartuko.

3. Proposamenak baloratu eta aztertuak izan daitezten, proposatutako testua aurkeztu beharko da nahitaez, eta, horrekin batera, justifikazio-oroitidazki bat, ekimena tramitatzeko eta onesteko arrazoiak azaltzen dituen. Gainera, 2.000 laguneko sinaduraren babes beharko dute.

4. Ekimenaren xedeko gaiari buruzko eginkizunak esleituak dituen organoak, proposamenak aurkezteko eskatzen diren legezko betebeharrak bete direla egiaztatu ondoren, txostena emanen du hiru hilabeteko epean. Txosten horretan, ukitutako interesak eta proposatzen den araudiaren interes publikoa baloratu ondoren, organo eskudunari proposatuko zaio erregelamenduzko xedapen proiektu gisa tramitatzeko has dadila edo geldiaraz dadila. Tramitatzeko hasia erabakiz gero, indarreko legedian ezarritakoari jarraikiz tramitatu da.

5. Ekimenari buruz organo eskudunak hartzen duen ebazpena proposamenaren egileei igorriko zaie. Proposamenaren egileek, proposamenak egiteko duten eskubidea urratu dela edo eskubide hori erabiltzeko foru lege honetan jasotzen diren bermeak urratu direla uste badute, bidezko diren errekurtsoak jartzen ahalko dituzte, foru legearen 68. artikuluekin bat. Hori hala izanik ere, foru

lege honetan ezarritako prozedura behin hasita, ezin izanen dute aurkaratu proposatutako erregelamenduzko ekimenaren tramitazioa hastearen aldeko edo kontrako erabakia.

**46. artikulua.** Jarduteko proposamenak edo iradokizunak egiteko eskubidea.

1. Herritarrek eskubidea dute Administrazio Publikoak ematen dituen zerbitzuen katalogo orokorrean dauden zerbitzuen funtzionamenduari buruz jarduketa proposamenak, hobekuntzak eta iradokizunak egiteko.

2. Administrazio Publikoak eskubide hori gauzatu ahal izateko baliabideak jarriko ditu katalogoaren beraren bidez, eta emandako zerbitzuak hobetzea ekarri duten ekimenen aintzatespen publikoa egitea sustatuko du.

**47. artikulua.** Herritarren jardueretan Administrazio Publikoaren elkarlana eskatzeko eskubidea.

1. Herritarrek eskubidea dute Administrazio Publikoaren elkarlana eskatzeko, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan herritarren parte-hartzea sustatzen duten irabazi-asmorik gabeko jarduerak egiteko.

2. Eskaeraren gaia zein den, horren gaineko eskumena duen departamentuari igorriko zaio eskaera, eta, horrekin batera, nahitaez, egin gogo den jarduketa eta egiteko modua azaltzen dituen oroitidazkia aurkeztu beharko da, besteak beste.

3. Departamentuko organo eskudunak, aurkeztutako eskaera ikusita, proposatutako jarduketaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu, eta arrazoituta ebatziko du, jarduketa garatzeko emanen duen laguntza zehaztuta, halakorik ematekoa bada.

4. Elkarlana eskatuta ere, jarduerarako behar diren baimenak eskatu beharko dituzte sustatzaileek, indarreko legediaren arabera beharrezkoa den kasuetan.

5. Proposatutako jarduketa ezarri edo garatzeko, Administrazio Publikoak egingen duen ekarpena, besteak beste, honelakoa izan daiteke: babesle gisa jardutea; ondasun publikoak lagatzea, aldi baterako edo noizbehinka; jarduketa gauzatzeko laguntza tekniko ematea; jarduketa hedatzen eta ezagutzera ematen laguntzea, erakundeen komunikazio-bideen bitartez; sari, aintzatespen edo aipamenak, edota antzeko beste neurri batzuk.

**48. artikulua.** Parte-hartzearen eta elkarlanaren txostena.

1. Herritarrek eskubide horiek erabiliz gero, Administrazio Publikoa behartua egonen da dagoen parte hartzeko prozesua irekitzera.

2. Parte hartzeko prozesu horien emaitza parte-hartzearen eta elkarlanaren txosten batean jasoko da, deusetan galarazi gabe prozesu bakoitzarentzat foru lege honetan eta geroko erregelamenduzko garapenean zehaztu daitekeena. Txostenean parte hartzeko prozesuaren emaitza eta erabilitako baliabideak jasoko dira, eta parte-hartze horrek jardunbide administratiboan izan duen eraginaren balorazioa.

## V. TITULUA

### Administrazio jarduketaren modernizazioa, arrazionalizazioa eta sinplifikazioa

**49. artikulua.** Arrazionalizazio eta sinplifikazio prozesuaren helburuak.

Gobernu Irekia ezartzeko beharrezkoa den osagarri gisa, Administrazio Publikoak, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legean aurreikusitako neurriak bultzatzeaz gain, Administrazioa arrazionalizatu eta sinplifikatzeko prozesu bat bultzatuko du, hala prozedurena nola egiturena, baita Administrazioa arautzen duen araudiarena ere, Administrazioa ulergarriagoa, hurbilagoa eta irisgarriagoa izan dadin herritarrentzat, eta herritarren zerbitzura arinago eta eraginkortasun handiagoz kudeatzeko gauza izan dadin, deusetan galarazi gabe herritarren eskubideak, bermeak eta segurtasun juridikoa.

## I. KAPITULUA

### Prozedurak eta egiturak arrazionalizatzea eta sinplifikatzea

**50. artikulua.** Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorra.

Administrazio Publikoak, urtebeteko epean, foru lege honek indarra hartu ondoren, Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokor bat prestatuko du, Administrazioa arrazionalizatzeko eta sinplifikatzeko neurriei bultzada bat emateko, bere eskumeneko prozedura eta egiturak ebaluatu ondoren.

**51. artikulua.** Departamentuarterko Batzorde bat sortzea.

Nafarroako Gobernuak departamentuarterko batzorde bat sortuko du, lehendakaritzako gaietan eskumena duen zuzendaritza nagusia buru duela. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu guztiak ordezkatuak izanen dira batzordean, eta, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren kanpoko pertsona eta entitateak. Batzordearen helburua izanen da Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorra sustatzea, planifika-

tzea eta haren diseinua eta egikaritzea koordinatzea, eta, orobat, ebaluatzea nola betetzen ari diren helburuak plana ezarri ahala, planean berean jasoko diren adierazleak erabiliz.

**52. artikulua.** Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorren helburuak.

Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorren eta hura garatzeko prozesu osoaren helburuak honako hauek izanen dira, egiturak eta prozedurak sinplifikatu eta arrazionalizatzeari begira:

a) Administrazio tramiteak murriztea, eta, kasua bada, beharrezkoak ez direnak kentzea.

b) Espedienteak tramitzeko epeak laburtzea eta, posible denean, baiezko isiltasun administrati-boa zabaltzea.

c) Behar-beharrezkoak den dokumentazioa baizik ez eskatzea.

d) Administrazio kargak arintzea eta kentzea.

e) Aurretiko komunikazioak eta erantzukizuneko aitortpenak sustatzea.

f) Inprimakiak eta datu-orriak sinplifikatu eta normalizatzea.

g) Tramitazioen esku-liburuak eta prozeduren gaineko gida edo protokoloak prestatzea.

h) Herritarrentzako jarduketak sustatzea haiek eskatu gabe.

i) Kudeaketa korporatiborako tresnak ezartzea eta datu-base eta aplikazio informatiko guztiak elkarri lotzea, beste administrazio batzuekiko elkarlana sustatuz.

j) Tramiteak modu telematikoa egin daitezen sustatzea, eta, bereziki, proiektu teknikoaren gordailuaren erabilera orokortzea.

k) Eginkizunak eskuordetu eta deskontzentratzeko teknikak erabiltzea, bai eta ikus-onespen dokumentala eta egokitasunari buruzko ikus-onespena ere, tresna horiek aurreikusita baitaude indarreko araudian.

l) Kontrol bikoitzak kentzea, deusetan galarazi gabe gastu publikoaren fiskalizazio eta kontrolean legedia zehatz-mehatz bete beharra.

m) Txostenak bateratzea eta, ahal denean, horien partez, proposamenak edo ikus-onespenak ematea.

n) Araudia egokitzea eta hobetzea.

ñ) Lanpostuak organigraman egokitzea, edo lanpostuak berriz baloratzea, prozeduran duten parte-hartzearen edo haien edukiaren arabera.

o) Eginkizun edo tramite bakoitza egoki eta hobekien egiteko behar diren tresna eta ekipamenduak jartzea langileen esku.

p) Langileen etengabeko prestakuntza.

q) Gai zehatza zein den, beharrezkoa den jarduketa sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko balio duen beste edozein.

**53. artikulua.** Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorren onespina.

1. Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorra onetsi aurretik, parte hartzeko prozesu zabal bat egingen da, plana herritarren eta Administrazio Publikoko langileen beraien eskakizunen arabera dela egiaztatzen.

2. Plana Nafarroako Gobernuak onetsiko du, eta haren edukia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian argitaratuko da.

**54. artikulua.** Planari zabalpena emateko neurriak.

Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorri zabalpen handia emanen zaio herritarren eta administrazio publikoko langileen artean, horiek guztiak izan daitezkeen aldaketaren benetako eragile.

**55. artikulua.** Exekuzio-epea.

Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorrean berean aurreikusiko da plana exekutatzeko epea. Gehieneko epea finkatuko da, eta horrekin batera, plana ezartzeko mailaz mailako neurri zehatzak, etapaz etapa.

## II. KAPITULUA

### Arrazionalizazioa, sinplifikazioa eta arauen kalitatearen hobekuntza

**56. artikulua.** Funtsezko helburuak.

1. Administrazio Publikoak ahaleginak egingen ditu arau-esparru egonkor eta ahalik eta sinplifikatuena edukitzeko, herritarrek eta eragile ekonomikoek aise eskuratzeko modukoa, indarreko araudi aplikagarria azkar eta modu ulergarrian ezagutzeko balioko duena, eta herritarrentzako eta enpresentzako zama administratiborik gabekoa, salbu eta interes orokorra asetzeko behar-beharrezkoak diren zamak.

2. Araugintzarako ekimen guztietan justifikatuko da printzipio hauen arabekoak direla: beharra, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, irisgarritasuna, sinpletasuna eta eraginkortasuna. Araugintzarako ekimenetan behar adina

justifikatu beharko da printzipio horien arabera jokatzeko delak. Zehazki:

a) Beharraren printzipioaren indarrez, araugintzarako ekimena justifikatu beharko da interes orokorreko arrazoi bat dela medio.

b) Proporzionaltasunaren printzipioaren indarrez, proposatzen den araugintza ekimenak tresna egokiena izan behar du lortu nahi den helbururako, egiaztatu ondoren ez dagoela helburu bera lortzeko beste neurririk, horren murriztailea ez denik eta horrelako distorsiorik eragiten ez duenik.

c) Segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko, araugintza ekimenerako ahalmenak erabiliko dira koherenteak izanda gainerako antolamenduarekin, arau-esparru egonkor eta ezagun bat sortzeko. Horrela, ingurune seguru bat izanen da, herritarren eta enpresen jarduketara eta beren erabaki ekonomikoak hartzeko bidea erraztuko duena.

d) Gardentasunaren printzipioa aplikatuz, argi eta garbi zehaztu beharko dira araudiaren helburuak eta haien justifikazioa.

e) Irigarritasunaren printzipioa bermatzeko, inplikaturik dauden eragileekin kontsultatzeko baliabideak ezarriko dira, araudia prestatzeko prozesuan aktiboki parte har dezaten bultzatzeko, eta indarreko araudira aise iristeko moduko baliabide unibertsalak ere ezarriko dira.

f) Sinpletasun printzipioaren indarrez, araugintza ekimen guztien helburua izanen da arau-esparru argi eta despertsio handirik gabekoa lortzea, araudia jakitea eta ulertzea errazten duena.

g) Eraginkortasunaren printzipioa aplikatuz, araugintza ekimenaren abiapuntua izanen da lortu nahi diren helburuak garbi identifikatzea, eta helburu zuzenak ezartzea eta azken helburu horiek lortzeko beharrezkoak ez diren alferrikako zamak saihestea.

**57. artikulua.** Arau-esparrua hobetzeko tresnak

Araudiaren kalitatearen printzipioa betetzeko, Administrazio Publikoak jarduketara hauek egiten ditu:

a) Araugintza ekimenak aurretik aztertutako tresnak sustatuko ditu, eragin ditzaketen ondorioak kontuan hartzen direla bermatzeko, hori guztia herritarrei eta enpresei ez sortzeko beharrezkoak ez diren edo neurrigabekoak diren kostu edo beharkizunak, lortu nahi den interes orokorreko helburuarekin konparatuta.

b) Arau-xedapenak prestatzeko orduan, arretarik handiena jarriko du herritarrek parte hartu eta

laguntzeko prozesuetan, eta, hori helburu, behar den informazioa eskainiko du araugintza ekimene-tatik espero diren ondorioak hobeki ulertu eta baloratzeko.

c) Bere araugintza lana *a posteriori* ebaluatze-ko prozedurak garatzea sustatuko du, noizean behin aztertuz antolamendua osatzen duten arauen indarraldia, egunerokotasuna, beharra eta egokitasuna, horrela bermatzen baita antolamendua aldatu eta egokitzen dela aplikatu behar den errealitate politiko, ekonomiko eta sozialaren arabera.

d) Indarreko araudia foru lege honetan jasotako printzipioei egokitzea sustatuko du.

e) Araugintzaren teknikalari jarraibideak prestatu eta onetsiko ditu. Arau juridikoen balioa izanen ez badute ere, irizpide teknikoak edo jarduketara-ildoak emanen dizkiete arauak erredaktatzen dituztenei, arauen kalitatea etengabe hobetzeko prozesuan laguntzeko.

f) Arauak bategiteko tresnen eta indarririk gabe geditutako araudia espresuki indargabetzeko tresnen erabilera bultzatuko du.

## VI. TITULUA

### Esparru orokor bat diseinatzea Administrazioan kalitatea etengabe hobetzeko

**58. artikulua.** Kalitatea etengabe hobetzea.

1. Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legean aurreikusitako neurriak bultzatzeaz gain, Administrazio Publikoak herritarrentzako zerbitzuen etengabeko hobekuntza bultzatuko du, zerbitzu publikoaren aldeko eta kudeaketaren kalitatearen aldeko kultura eta balioak garatzeko jarduketak sustatuz, baita herritarren parte-hartzea eta laguntza bideratzeko jarduketak ere. Hori helburu, Administrazioaren behar eta asmoak txertatuko dira politikak eta zerbitzu publikoak garatzeko faseetan.

2. Horretarako, Administrazio Publikoak, kalitatearen arloan eskumena duen departamentuaren bitartez, Administrazioan kalitatea etengabe hobetzeko esparru orokor bat diseinatuko du, foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean.

3. Esparru horren helburu nagusia herritarrei zerbitzua emateko printzipioa zehaztea izanen da, oinarriko bi erreferentzia izanik: batetik, kudeaketa publikoa emaitzetara orientatzea, eta bestetik, herritarrak gogobetetzea, zerbitzuen erabiltzaile diren aldetik eta politika eta zerbitzu publikoen diseinuaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren partaide diren aldetik.



**59. artikulua.** Kalitaterako estrategiak.

Administrazioan kalitatea etengabe hobetzeko esparru orokor hori diseinatzeko, abiapuntua izanen da kalitate-estrategia hauek errespetatzea:

a) Bikaintasun ereduak hartzea kudeaketarako erreferentzia gisa.

b) Zerbitzuetan kalitate helburu eta estrategiak ezartzea, onesten den zerbitzuen gutunean jasoko direnak.

c) Administrazioa sinplifikatzea eta herritarrek sarbide elektronikoa izatea zerbitzu publikoetara.

d) Jarduerak eta emaitzak ebaluatzea, hots, zerbitzu, programa, plan eta politika publikoen etengabeko ebaluazioa egitea.

e) Iradokizunak eta erreklamazioak egiteko sistemak ezartzea.

f) Herritarren parte-hartzea eta elkarlana.

g) Administrazio publikoko langileen gaitasunak garatzea eta kudeaketaren kalitatea etengabe hobetzeko prozesuan duten inplikazioa aintzat hartzea.

**60. artikulua.** Kalitate konpromisoak.

1. Administrazio Publikoak kalitate konpromiso batzuk hartuko ditu, Administrazioan kalitatea etengabe hobetzeko esparru orokorrean ezartzen den moduan eta hango baldintzei jarraikiz.

2. Zehazki, konpromiso hauek hartuko ditu:

a) Administrazioan kalitatea ezartzeko behar diren sostengu-egitura edo baliabideak zehaztea.

b) Antolamendurako eta administrazioen arteko koordinaziorako formula batzuk ezartzea politika horiek benetan gauzatzen direla bermatzeko.

c) Esperientzia trukeak eta ezagutzaren kudeaketa sustatzea.

d) Kudeaketaren berrikuntzaren alde egitea, azpiegiturak eta herritarrentzako tresna eta teknologiak eta azpiegiturak ezarri.

e) Arau, programa, plan eta politika publikoen etengabeko azterketa eta ebaluazioa aplikatzea.

f) Beren ekarpenen bidez, Administrazioan kalitatea etengabe hobetzen laguntzen duten pertsona eta erakundeei esker ona emateko bideak garatzea.

g) Gizarteari kontuak ematea.

h) Zerbitzuen Gutuna prestatu eta hedatzea.

i) Kalitatea gobernu programetan txertatzea.

**VII. TITULUA****Etika eta gardentasuna Gobernuaren ekintzan****61. artikulua.** Jarduteko printzipioak.

1. Nafarroako Gobernuko kideen eta Administrazio Publikoko goi kargudunen jardunaren ardatzak interes orokorra eta beren kudeaketaren gardentasuna izanen dira, eta martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legearen bidez onetsitako Gobernu Onaren Kodean jasota dauden printzipio etikoei jarraikiz jokatu dute.

2. Nafarroako Gobernuko eta Administrazio Publikoko goi kargudunen tratamendu ofiziala jaunarena edo andrearena izanen da, eta horren atzetik, hari dagokion kargua, enplegua edo maila.

**62. artikulua.** Interesen arteko gatazkak.

1. Nafarroako Gobernuko kideak beren ardura publikoekin gatazkan egon daitezkeen jardura pribatu eta interes guztiez begiratu beharko dira. Interesen arteko gatazka bat dagoela joko da batera egokitzen badira, Gobernuko kideek erabaki beharreko gai batean, interes publikoak eta interes pribatuak –Gobernuko kidearenak, bere zuzeneko familiartekoenak edo gobernukideak beste hirugarren pertsonekin partekatzen dituenak–. Aurreko guztia aplikatuko da deusetan galarazi gabe Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean uko egiteko ezarrita dauden kasuak.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa Administrazio Publikoko goi kargudunei ere aplikatuko zaie.

**63. artikulua.** Ordainsariak, jarduerak eta ondasunak jakitera ematea.

1. Nafarroako Gobernuko kideek eta Administrazio Publikoko goi kargudunek beren jardura osagarrietan aritzeagatik jasotzen dituzten ordainsari eta bestelako diru-kopuruak jakitera emanen dira. Jakitera emanen dira, orobat, beren agintaldiaren edo kargualdiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare-ondasun eta eskubideak.

2. Hori jakitera emateko Jardueren Erregistroa eta Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroa erabiliko dira, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarri bezala.

**64. artikulua.** Kargua utzi ondorengo ordainsariak jakitera ematea.

Jakitera emanen dira Nafarroako Gobernuko kide ohiei eta Administrazio Publikoko goi karguetan ibili direnei ordaintzen zaizkien prestazio eko-

nomikoak, azaroaren 4ko 19/1996 Foru Lege horretan ezarrita daudenak. Horien berri emateko, lege horretan ezartzen denari jarraikiko zaio.

**65. artikulua.** Jarduneko Gobernuak.

Jarduneko Gobernuak jarduteko eta erabakiak hartzeko muga batzuk izanen ditu, hain zuzen, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean ezarrita daudenak. Gainera, sartzan den gobernuarentzako dokumentazioa egoera onean dagoela bermatuko du, eta horretarako, oinarrizko agirien inbentarioak prestatuko ditu, formatu seguru eta praktikoenean, sartzan den gobernuari boterealdaketa errazteko. Inbentario horien helburua izanen da gobernu berriak jarduteko ezinbestekotzat jotzen diren garrantzi publikoko gai eta artxibo bukatugabeen egoera zehatzaren berri ematea, gardenki, departamentuz departamentu, eta, orobat, dagokion aurrekontuaren betetze-mailaren egoeraren berri ematea.

**66. artikulua.** Gardentasuna Gobernuaren jarduneari eta kontuak ematea.

1. Kasuan-kasuan Nafarroako Gobernuak osatzen duten pertsona guztiek konpromisoa hartuko dute gobernu jarduneari gardentasunez aritzeko, eta beharturik egonen dira herritarrei beren kudeaketaren kontu ematera.

2. Horretarako, behar diren tresnak arautu eta ezarriko dira bai Gobernuak, oro har, bai Gobernuak kide bakoitzak bere esparruan, honakoak egin ahal izan ditzan:

a) Herritarrekin konpartitu politikaren gaineko erabakiak eta kudeaketaren eta inbertsio publikoaren gaineko lorpenak eta zailtasunak.

b) Kontuak eman baliabide publikoak administratzeko moduz, eta administratzeko modu horrek onetsitako plangintzarekin duen koherentzia.

c) Politikaren egintzak doitzeko baliabideak sortu eta garatu, herritarren eskakizunei egokitzeko.

d) Herritarrei ahalbideak eman Gobernuaren jarduerara osoa kontrolatzeko, eta herritarrek jarduerara hori bultzatzeko eta orientatzeko duten gaitasuna indartu.

## VIII. TITULUA

### Berme administratiboak, judizialak eta judizioz kanpokoak

**67. artikulua.** Errekurtsoak.

1. Inork uste badu Administrazio Publikoari egozten ahal zaion egintza batek edo ez-egite

batek foru lege honetan informazioaren eta partaidetza eta elkarlan publikoaren arloan aitortzen zaizkion eskubideak urratu dituela, administrazio-prozedura erkideari buruzko oinarrizko araudian eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko Foru Legean araututako errekurtsoak jartzen ahalko ditu, eta, kasua bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zeina administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen legean baitago aurreikusita.

2. Jartzen diren gora jotzeko errekurtsoak lehendakaritza gaitan eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak ebatziko ditu, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57.2.f) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, foru lege honen azken xedapenetako bigarrenean azaltzen den idazketaren arabera.

3. Gai juridikoen eta lehendakaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren egitura organikoaren barruan, unitate bat sortuko da, informazio eta parte-hartze eta elkarlan publikoaren gainean jartzen diren errekurtso administratibo guztiei buruzko txostenak eginen dituen. Unitate horri erregelamenduz esleituko zaizkio herritarrek arlo horietan dituzten eskubideak garatu eta benetan erabili ahal izateko behar diren eginkizunak.

**68. artikulua.** Kexa Nafarroako Arartekoaren aurrean.

1. Foru lege honen III. tituluan informazioa eskuratzeko aitortzen den eskubidea herritarrek erabiltzea osorik edo partez galarazi edo mugatzen duten Administrazio Publikoaren organoen berariazko edo ustezko ebazpenen aurka jar daitezkeen errekurtso administratiboak deusetan galarazi gabe, informazio publikoaren eskatzaileak kexa bat bidaltzen ahalko dio Nafarroako Arartekoari, betiere informazio hori eskuratzeko eskubidea galarazi edo mugatu baldin bazaio, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Arartekoaren esku-hartzeak ez ditu etenen bidezko diren errekurtso administratiboak edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoak jartzeko epeak, Arartekoari buruzko Foru Legean ezarri bezala.

**69. artikulua.** Administrazio Publikoaren aurreko erreklamazioak, sozietate eta fundazio publikoen eta beste entitate batzuen jarduketaren aurka.

1. Herritarrek uste badute foru lege honen 2. artikuluan aipatutako sozietate publiko, fundazio publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten egintza edo ez-egite batek foru lege honetan aitortzen

tzen zaizkion eskubideak urratu dizkiola, baldin eta egintza edo ez-egitea erakunde horrek eginkizun publikoetan jardutearen edo haren zaintza administratiboaren pean dauden eginkizunetan jardutearen ondorio bada, aukera izanen du zuzenean erreklamazio bat aurkezteko, Administrazio Publikoaren zein organo eskudunen agindutara jarduten duen, haren aurrean.

2. Organo eskudunak behar den ebazpena eman eta jakinarazi beharko du. Ebazpen horrek bide administratiboa amaituko du, eta, erreklamazioa haren erregistroan sartu eta hiru hilabeteko epean, betearazlea izanen da zuzenean.

3. Ebazpena betetzen ez bada, Administrazio Publikoan eskumena duen organoak lehenengo idatz-zatian aipatutako entitateei eskatuko die, ofizios edo eskatzaileak eskatuta, ebazpena bere horretan bete dezaten.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Gardentasuna eta Gobernu Irekia ezartzeko Jarraipen Batzordea.

1. Foru lege honen bidez Gardentasuna eta Gobernu Irekia ezartzeko Batzordea sortzen da, deusetan galarazi gabe Administrazioa Sinplifikatzeko Plan Orokorren diseinua eta exekuzioa sustatu, planifikatu eta koordinatzeko Nafarroako Gobernuak sortuko duen Departamentuarteko Batzordeari foru lege honen 51. artikuluan esleitzen zaizkion eginkizun zehatz eta berariazkoak. Unitate horren ardura izanen da foru lege honetan jasotako neurriak oro har bultzatzea eta neurri horien ezarpen maila baloratzea, eta, kasua bada, baita foru lege honetan jasotako xedapenak bete eta erabat eraginkorrak izan daitezen behar diren jarduketa zuzentzaile guztiak sustatzea ere, hain zuzen, foru legeak indarra hartu eta hiru urteko epean gehienez.

2. Jarraipen Batzordeko burua lehendakaritza arloan eskumena duen kontseilaria izanen da, eta horrez gainera, kide hauek ere izanen dira batzordean: Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren eta Teknologia Berrien arloetan eskumenak dituzten zuzendaritza nagusietako titularrak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu-arlo bakoitzetik ordezkari bat bederen, gutxienez zuzendari nagusi izanen direnak.

3. Jarraipen Batzordeak, urtero, txosten bat prestatu eta argitaratuko du foru lege honen aplikazio mailari buruz, eta, lau urtean behin, haren aplikazioaren gaineko ebaluazio bateratua eginen du, eraginkorragoa izateko sar litezkeen hobekuntzak proposatuz.

4. Era berean, aldian behin, informazio publikoa emateko jasotako eskakizunei buruzko informazio estatistikoa prestatu eta argitaratuko du, baita foru lege honen aplikazioan eskuratutako eskarmentuari buruzko informazioa ere, betiere eskatzaileen konfidentziasuna bermatuko duela.

5. Jarraipen Batzordeak, bere eginkizunetan jarduteko, propio izendatuko den batzorde tekniko baten laguntza izanen du.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen tramitazio telematikoa.

Administrazio Publikoak, bere prozedura telematikoen artean, informazio publikoa jasotzeko eskaeren ebazpenei buruzkoak sartu beharko ditu.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen erreforma.

Urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea erreformatzeko foru lege proiektu bat aurkeztuko du Nafarroako Parlamentuan. Haren helburua izanen da Nafarroako toki entitateen jardunean txertatzea foru lege honetan gardentasunari, herritarren parte-harteari eta elkarlanari eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubideei buruz jasotako printzipio eta aurreikuspenak, bidezko diren berezitasunak erantsita.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Gardentasuna beste erakunde batzuetan sustatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko erakundeek hartuko dituzte, nork bere arloan, urte bateko epean, gardentasunerako eta herritarren parte-hartze eta elkarlanerako neurriak, foru lege honetan jasotako printzipio eta aurreikuspenekin bat.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Prestakuntza plana

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak Berariazko Prestakuntza Plan bat jarriko du abian, Administrazio Publikoko langileak sensibilizatzeko foru lege honetan aurreikusitako eskubide eta betebeharren gainean.

**Seigarren xedapen gehigarria.** Euskararen erabilera eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

1. Foru lege honen III. tituluan araututa dauden informazio publikoa eskuratzeko eskaerei aplikatzekoa izanen zaie euskara administrazio publikoetan erabiltzeari buruzko araudia.

2. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateak behar diren neurriak hartuko ditu Nafarroako Gobernuaren web-atariaren bidez hedatzen den informazio publikoa modu progresiboan euskaraz ager dadin.

**Zazpigarren xedapen gehigarria.** Informazioa eskuratzeko eskubidearen araubide bereziak.

1. Beren araubide berariazkoari jarraituko diote zerga arloak, osasun arloak eta, oro har, informazio publikoa eskuratzeko araubide berariazkoa lege mailako arauen bitartez araututa duten gainarako gaiak.

2. Hala ere, kasuan kasuko berariazko araudiaren aurreikusita ez dagoen guztian, foru lege honetan xedatutakoa aplikatuko zaie ingurumen arloko informazioari, lurraldearen antolamenduko eta hirigintzako informazioari eta titulartasun publikoko artxibo historikoetan dagoenari, eta, orobat, foru arau baten bitartez herritarrei administrazio publikoek duten informazio publikoa arrazoirik eman behar izan gabe eskuratzeko eskubidea aitortzen zaien beste edozein kasuri.

**Zortzigarren xedapen gehigarria.** Doikuntzak foru lege honen printzipio gidariak errespetatzen direla bermatzeko.

Foru lege honek indarra hartu ondoren, sozietate publikoek, fundazio publikoek, zuzenbide publikoko entitateek eta zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek, publikoek zein pribatuek, behar diren aldaketak sustatuko dituzte beren antolaketa, egitura eta, kasua bada, barne araudian, ematen duten zerbitzua foru lege honen printzipio gidarietara egokitzeke.

**Bederatzigarren xedapen gehigarria.** Gardentasun beharra, diru-laguntza publikoen onuradunentzat.

Erregelamenduz ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzten diru-laguntzen kasuan, diru-laguntza horien hartzaileei betebeharrak gisa ezarriko zaie diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileetan, adieraztea zer ordainsari dituzten, kontzeptu guztiak kontuan hartuta, beren gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organotako kideek, eta ezagutzera ematea, halaber, beren urteroko kontuak, Administrazioak horiek guztiak jakitera eman ahal izan ditzan.

**Hamargarren xedapen gehigarria.** Arauen egokitzapena.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege honetako 56. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitako helburuak betetze aldera, berrikusi egingen du indarrean

den araudia, eta, kasua bada, egokiak diren legegintzako ekimenak sustatuko ditu.

2. Foru lege honek indarra hartu ondoren, ahalginak egingen dira onesten edo aldatzen diren xedapen orokor guztietan jaso daitezkeen gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen eta elkarlanaren gainean hemen ezarri diren printzipioak.

**Hamaikagarren xedapen gehigarria.** Genero-berdintasuna hizkeran.

Zenbait pertsona, lanpostu edo karguri buruz ari denean foru lege honek, gaztelaniazko testuan, genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasuetan ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko delatza horrela, eta postu horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, aipatutako pertsonen edo kargu edo lanpostu horien titularren sexua edozein dela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan ondorio juridikoen ikuspegitik.

**Hamabigarren xedapen gehigarria.** Lizentziaren tramitazioa sinplifikatzea.

Nafarroako Gobernuak, lanbide elkargoekin batera eta jarduera ekonomikoa bultzatzea helburu duten erakundeekin batera, horiek zer parte-hartze izanen duten erabakita, foru lege proiektu bat egingen du honakoak aldatzea izanen duena

helburu: batetik, Ingurumena Babesteko Esku Hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea, eta, bertan, jarduerarako lizentzia eta irekitzeko lizentzia emateko prozedura; eta, bestetik, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, obra lizentzietan dagokienez. Aldaketekin, lizentzia horien tramitazioa sinplifikatu egingen da, eta modu eraginkorrean sartuko dira bi figura, erantzukizuneko aitortpena eta aurretiazko komunikazioa hain zuzen, zeinak Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 11. eta 12. artikuluetan aipatzen baitira, eta, era berean, jarduera sailkaturako lizentzia behar duten jarduerak murriztu egingen dira. Halaber, Nafarroako Gobernuak berrikusi egingen du zer jarduera jasotzen dituen 4. eranskinean abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuak, Ingurumena Babesteko Esku Hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuenak.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe geratzen dira foru lege honetan xedatuari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehena.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen aldaketa.

Letra bat, f) letra hain zuzen ere, gehitu zaio aipatu foru legearen 57. artikulua 2. idatz-zatiari. Hauxe dio:

“f) Lehendakaritza arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularra, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontseilarietatik beherako edozein organok edo haren erakunde publikoek informazio eta parte-hartze eta elkarlan publikoaren arloaren gainean emandako egintzei dagokienez, baldin eta egintza horiek

Gardentasuna eta Gobernu Irekia arautzen dituen Foru Legean araututa baldin badaude.”

**Azken xedapenetan bigarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematea.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabetera hartuko du indarra.



## **Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiengo osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENA

Foru Lege honek 19/1996 Foru Legea aldatzen du, eta, horretarako, 19/1996 Foru Legeko zioen azalpenean adierazi bezala, Nafarroako Parlamentuko kideen gehiengo osoak onets dezala eskatzen da, hala ezartzen baita Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 eta 25. artikuluetan eta Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 152. artikuluan.

Artikulu bakarrean jasotzen dira 19/1996 Legearen artikuluetan egin beharreko aldaketak, lege hori Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Legean ezarritako irizpide berrietara egokitze aldera: publizitatea, gardentasuna, bai eta mugak ere ordainsariak, diru-sarrerak edo dietak eta kargua utzi ondorengo ordainsariak kobratzeari dagokionez. Eta xedapen iragankor bakarrean gaur egun goi kargu ohi direnen araubideari eustea aurreikusten da.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen aldaketa.

Ondotik adierazten diren foru lege horren aginduak era honetan aldatzen dira:

Bat. 2. artikulua 1. idatz-zatia honela idatzita geldituko da:

“1. Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek dira goi karguak:

a) Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta kontseilariak.

b) Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuko kontseilarien kabinetetako kideak, administrazio-kontratudun langileak izan ezik.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusiak.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko erakunde publikoetako zuzendari kudeatzaileak.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoetako zuzendari kudeatzaileak eta horien parekoak direnak.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako fundazio publikoetako zuzendariak eta horien parekoak direnak, kargu horietan aritzeagatik aldizkako ordainsari finkoak jasotzen badituzte.”

Bj. 3. bis artikulua 2., 3. eta 4. idatz zatiak honela idatzita geldituko dira:

“2. Kargua utzi eta biharamunetik aurrera, Nafarroako Gobernuko kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zuzendari nagusiek eta haren menpeko erakunde publikoetako zuzendari kudeatzaileek eskubidea izanen dute hilabetero prestazio ekonomiko bat jasotzeko; hain zuzen ere, kargua uzten dutenean jasotzen ari ziren urteko guztirako ordainsarien % 80aren hamabiren bat. Karguan egondako denbora zenbat izan den, denbora horren erdia egiten duen epe batez jasotzen ahalko dute prestazio hori; betiere, hogeita lau hileroko jasotzen ahalko dituzte gehienez.

Prestazioa sorrarazten den bitartean, ez bada bidezkoa interesdunari bere aurreikuspen sozialeko sisteman alta ematea, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin hitzarmen berezi bat sinatzen ahalko du, eta horren ondoriozko kotizazioak itzultzeko eskubidea izanen du.

3. Aurreko idatz-zatian araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:

a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatiko ordainsariekin, sektore publikoak izan, edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etorritako diru-sarrerekin.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatiko dietekin.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseiluetara joateagatiko dietekin.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariekin.

Ordainsari, erretiro-sari edo diru-sarrera horiek, urteko guztiak kontatuta, baxuagoak badira aurreko idatz-zatian adierazitako prestazio ekonomikoa baino, eskubidea izanen dute bien arteko aldea jasotzeko, bakarrik.

4. Administrazio publiko batean edo horien menpeko erakunde autonomo batean lanpostu bat erreserbatuak duten enplegatu publikoek ez dute aurreko idatz-zatietan ezarritako prestazio ekonomikoa inolaz ere jasoko.”

Hiru. 3. bis artikuluari idatz-zati bat gehitzen zaio:

“6. Nafarroako Gobernuko kide ohiek, Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozuzendari nagusi ohiek eta haren menpeko erakunde autonomoetako zuzendari nagusi ohiek, artikulua honen 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera, jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak Nafarroako Gobernuak Interneten duen atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den bezala.”

Lau. 5. artikulua 1. idatz-zatiko b) letra kentzen da.

Bost. 6. artikuluari idatz-zati bat gehitzen zaio:

“d) Irakaslan unibertsitateko zentroetan, betiere lanaldi partzialean egiten baldin bada, denbora jakin baterako, eta kargu publikoan aritzeari kalte egiten ez badi.”

Sei. 9. artikulua honela idatzita geldituko da:

“9. artikulua. Erregistroko atalen eta haietan agertzen diren datuen publikotasuna.

1. Jardueren Erregistroa publikoa da, eta hango informazioa eskuratzeko araubidea foru lege honetan, oinarriko legedian eta horiek garatzeko onesten diren arauetan xedatuta dago.

2. Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroa erreserbatua da, eta hango informazioa eskuratzeko ahalko dute, interesdunaz gainera, honako organo hauek:

a) Nafarroako Parlamentuak, haren erregelamenduak ezartzen duenari jarraikiz, eta Comptos Ganberak, hura arautzeko foru legeak ezartzen duenari jarraikiz.

b) Organo judizialek, erregistroko datuak jakitea behar duten prozesuak instruitu edo ebazteko, prozesuei buruzko legeetan xedatutakoari jarraikiz.

c) Fiskaltzak, bere eginkizunetan ari dela, erregistroko datuak jakitea eskatzen duten ikerketa lanak egiteko.

3. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Gobernuko kideek eta Administrazio Publikoko goi kargudunek, bateragarriak diren jardueretan aritzeagatik, jasotzen dituzten ordainsariei eta bestelako dirukopuruei buruzko erregistro datuak, eta agintaldiaren edo kargu publikoko aldiaren hasieran, bitartean eta bukaeran dituzten ondare ondasun eta eskubideei buruzkoak, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atarian argitaratuko dira, erregelamenduz ezartzen den moduan. Horren ondorioetarako, ondare ondasun eta eskubideei buruzko datuak argitaratuko dira haien balioaren eta eskuratzeko moduaren berri emateko, baina kokapena saihestuko da eta titularren pribatutasuna eta segurtasuna begiratuko dira.”

**Xedapen iragankor bakarra.** Gaur egun goi kargudun ohi direnen araubidea.

Foru lege honen bidez azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari, hots, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administraziozuzendari goi karguen bateraezintasunei buruzkoari, egindako aldaketak ez zaizkie aplikatuko gaur egun goi kargu ohi direnei, egoera horretara iritsi ziren unean indarra zuen araudiaren pean segituko baitute.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.



**Azken xedapenetan lehena.** Arau-garapena

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hone-tan ezarritakoa garatu eta betearazteko.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitaratu eta sei hilabetera hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko Foru Legea**

**ZIOEN AZALPENA****1**

Nafarroako Gobernuak 2012. urterako defizitaren helburua betetzeko duen konpromisoaren ondorioz, eta ekonomiaren gaur egungo bilakaera eta horrek Nafarroako Gobernuaren diru-bilketarako ahalmenean izan duen eragina direla kausa, neurri batzuk hartu behar dira diru-sarrerara publikoak handitzeko eta gastuak, hasierako aurreikuspenekin alderatuta, murrizteko. Horiek horrela, beharrezkoa da, antolaketa neurri batzuk ezartzea, eta horiek konbinatzea langileen lan baldintzak zuzenean ukitzen dituzten beste neurri batzuekin.

Nafarroako Gobernuak abian jarri dituen antolaketa neurrien helburua da gastua murriztea, langileriaren arloko jarduketa batzuetarako irizpideak finkatuz, arlo hauetan besteak beste: erretiroen ondorioz gelditzen diren lanpostu hutsak betetzea, langileak hainbat arrazoiengatik ordeztuko egiten diren kontratazioak, eta lanaldi arruntaren ginetik egiten diren jarduketak murriztea, aparteko orduen bidez edo produktibitatearen osagarriaren bidez legezko konpentsazioa dutenak.

Langileen lan baldintzetan zuzeneko eragina duten neurriak dira, hain zuzen, foru lege honen xede. Kontuan harturik neurri hauen zergatia aurrekontuen eta ekonomiaren egungo egoera dela, neurri gehienen indarraldia 2012. urtera mugatzen da. Aurrerago aztertuko da haien indarraldia hurrengo urteetara hedatu behar den edo ez.

**2**

Neurri horietako baten ondorioz, eten egiten da langileek, hirurogeita bost urte bete eta erretiroa nahitaez hartzeko adinera iritsita, jardunean segitzeko duten aukera. Neurri honetarako zenbait salbuespen ezartzen dira, konparazio batera, erretiro-saria jasotzeko eskubiderik sortu ez duten langileen kasuan. Jardunean segitzea baimentzen ahalko da, orobat, zerbitzu publikoak egoki emateko erretiroko adina atzeratzea ezinbestekoa den kasuetan. Azkenik, hiru hilabeteko epea ematen da, nahitaezko erretiroa hartzeko adina beterik, gaur egun jardunean dauden langileek erretiroa eskatzeko.

Horren ondotik, bi neurri jasotzen dira, langileen bi soldata kontzeptu eteten dituztenak: batetik, elementu aldakor batzuetatik (jaiegunetako eta gaueko lana, eta bertan egon beharreko guardiak eta guardia lokalizatuak) jasotzen den konpentsazioa, opor egunei dagokienez; eta bestetik, ezkontidearentzat edo bikotekide egonkorarentzat ezarritako familia laguntza, bestelako diru-sarrerarik ez duten kasuetan.

Hurrengo neurria Nafarroako administrazio publikoetako langileen lanaldiari dagokio. Sektore publiko osoarentzat oro har hartutako neurrien ondorioz, asteko hogeita hamazazpi ordu eta erdiko lanaldia ezartzen da batez beste. Erabaki horrek urteko orduen kopurua 1.628 orduan finkatzea dakar. Urteko kopuru hori, era berean, egokitu behar da ezarrita dauden lanaldi mota guztie-

tan. Administrazio Publiko bakoitzak bere burua antolatzeko duen ahalmena errespetatzeko, administrazio bakoitzak banatuko du beren langileen urteko lanorduen kopurua zerbitzu bakoitzaren beharren arabera.

Foru lege honetan jasotako beste neurri baten ondorioz, lana dela-eta egiten diren bidaien kalteordain gisa ezarrita zeuden dietak kentzen dira. Hemendik aurrera, behar bezala justifikatutako gastuak baino ez dira itzuliko. Era berean, mugatzen dira osasun publikoak jasotzen ez dituen prestazio batzuk, Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzua erabiltzen duten funtzionarioek aitortuak dituztenak; zehazki, optikakoak eta odontologiakoak.

Neurrien azkeneko bi atalak sindikatuen ordu kredituari buruzkoak eta Nafarroako Gobernuak kideei eta gainerako goi-karguei buruzkoak dira. Ordezkarri sindikalek beren eginkizunak egiteko duten ordu kredituari dagokionez, 100eko 10 murrizten da. Murrizketa hori indarreko araudian, hots, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan eta Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoan ezarritakoaren gainetik dagoen kredituari egotzi beharko zaio. Goi-karguei dagokienez, horiek guztiek edo batzuek orain arte zituzten prestazio batzuk kentzen dira, hala nola nominako deskontuak Gizarte Segurantzaren kotizazioetatik, bizi-asegurua eta istripu-asegurua, eta Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzuko afiliazioa. Orobat, murriztu egiten da Gobernuak goi-kargu izandakoentzat ezarritako osagarri pertsonala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio publiko funtzionario direnentzat.

Xedapen gehigarrietan zehazten da nola aplikatuko zaizkien foru lege honetan jasotako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio publiko eta haren erakunde autonomoetako estatutupeko eta lan-kontratuko langileei; izan ere, haien lan baldintzak funtzionarioek dituztenekin parekatuta daude. Nafarroako toki entitateetako lan-kontratuko langileei dagokienez, toki entitate bakoitzaren esku uzten da neurrien aplikazioa, bakoitzaren egoera zehatzaren arabera. Bestalde, foru lege hau Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoen zerbitzuko lan-kontratuko langileei aplikatzeko baldintzak finkatzen dira.

Azken xedapenetan zenbait aldaketa egiten zaizkie Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeari, zeinaren bidez arautzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa. Aldaketa horiek, alabaina, ez dute zerikusirik foru lege honen artikuluetan jasotzen

diren neurri ekonomikoekin. Aldaketa horietako batzuk egin behar dira ordezkarri sindikalekin lortutako zenbait akordio legezatzeko; konparazio batera, seme-alaba bat edo familiako bat zaintzeko eszedentzia bereziaren arauketa, administrazio langileen mugikortasuna edo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen alde aurreko egokitzapenak beren eremu bakoitzean. Bestalde, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen araudia Osasun Departamentuko gainerako erakunde autonomoetako langileei aplikatzea aurreikusten da. Neurri hori beharrezkoa da departamentu horren barrenean egiten diren antolaketa-aldaketek ukitutako langileen lan baldintzak aldatu behar ez izateko.

Azkenik, foru lege honek 2012ko uztailaren 1etik aurrera hartuko duela indarra aurreikusten da. Zehazten da, orobat, 2012. urteari dagozkion neurriek egun horretatik aurrera izanen dituztela ondorioak, urtea bukatu arte, deusetan galarazi gabe hurrengo ekitaldietan ere osorik edo partez aplikatzea ekonomiaren eta aurrekontuen egoeraren bilakaeraren arabera. Hori legez dagoen mailako arauen bitartez arautuko da.

**1. artikulua.** Langileen jarduneko zerbitzua luzatzea.

1. Hirurogeita bost urte bete eta nahitaezko erretiroa hartzeko adinera iritsita, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek jarduneko zerbitzua luzatzeko duten aukera ez da aplikatuko 2012. urtean, langilearen aurreikuspen sozialemo sistema zein den gorabehera.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitakotik aparte uzten dira nahitaezko erretiroa hartzeko egunean beren aurreikuspen sozialeko sisteman erretiro-saria jasotzeko eskubidea sortzeko ezarritako gabealdia osatu ez duten langileak. Horrelako kasuetan, jarduneko zerbitzuan segitzerik izanen dute gabealdi hori osatu arte, eta betiere, hirurogeita hamar urte bete arte.

3. Irakasleek nahitaezko erretiroa hartzeko adina betetzen duten ikasturtea bukatu arte luzatzen ahalko dute zerbitzualdia.

4. Foru lege honek indarra hartzen duen egunean nahitaezko erretiroa hartzeko adina beteta izan arren jarduneko segitzen duten Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek hiru hilabeteko epea izanen dute egoera hori bukatzeko eta erretiroa eskatzeko. Epe hori erretiroa eskatu gabe bukatuta, ofizioz deklaratu da, epea bukatzearekin batera.

5. Salbuespen gisa, Nafarroako administrazio publikoek ahalmena izanen dute egoera batzuk

luzatzeko baimena emateko, zerbitzu publikoak behar bezala emateko ezinbestekoa bada langile jakin batzuek jarduneko zerbitzuan segitzea aldi jakin batean, eta betiere, hirurogeita hamar urte bete arte. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileei dagokienez, baimen berezi hori Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bidez emanen da.

6. Artikulu honetan aipatutako aurreikuspenak berarekin dakar etetea Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 32. artikulua aplikazioa.

**2. artikulua.** Elementu aldakorren konpentsazioa langileen oporraldietan.

1. 2012. urtean, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei ez zaie ordainduko oporraldiei dagozkien elementu aldakorren konpentsazioa, hots, gaueko lanaren konpentsazioa, jaieguneko lanaren konpentsazioa eta bertan egon beharreko guardiak eta guardia lokalizatuak egitearen konpentsazioa.

2. Artikulu honetako aurreikuspenak berarekin dakar honako arau hauen aplikazioa etetea: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 17. artikulua 2. idatz-zatia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru konpentsazioak arautzen dituen azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretuaren 7. artikulua eta, orobat, horri guztiari dagokionez, toki entitateetan dagoen araudia, halakorik baldin badago.

**3. artikulua.** Familia laguntza.

1. 2012. urtean zehar Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei ez zaie ordainduko ezkontideak edo bikotekide egonkorak bestelako diru-sarrerarik ez izateagatik ematen den familia laguntza izeneko soldata kontzeptua.

2. Artikulu honetan jasotako aurreikuspenak berarekin dakar Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 50. artikulua 1.a) idatz-zatiaren aplikazioa etetea.

**4. artikulua.** Lanaldia.

1. 2012. urtean, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lanaldia hogeita hamazazpi

ordu eta erdikoa izanen da astean batez beste, hau da, 1.628 ordu urtean.

2. Aurreko idatz-zatian finkatutako urteko lanorduen kopuruaren gainean behar den konpentsazioa aplikatu ondoren, txandaka aritzen diren Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek lanpostuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

A) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.493 ordu.

B) Lanaldi malgua (basozainak): 1.548 ordu.

C) Gauetako txanda finkoa: 1.571 ordu.

D) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.590 ordu.

E) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.605 ordu.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritako ordu konpentsazioetan, baita txandaka, gauetan edo jaiegunetan lan egiteagatik ezarritako konpentsazio ekonomikoetan ere, jasota daude lanpostu guztietan gerta daitezkeen gorabeherak eta berezitasunak oro; besteak beste, txandakako lanaldiak, txanden artean informazioa eman beharra, etab.

4. Urteko lanordu kopuruaren banaketa Administrazio Publiko bakoitzak egiten du zerbitzu bakoitzaren beharren arabera. Dagokion Mahaian beharrezko negoziazioa eginda, eta, betiere, ezarritako urteko ordu kopurua errespetatuz, eremu edo langile-talde jakin batzuetan oro har ezartzen denaz bestelako banaketa egin daiteke, baldin eta justifikatzen bada beharrezkoa dela zerbitzu horiek egoki emateko.

5. Artikulu honetan jasotako aurreikuspenaren ondorioz, eten egiten da abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretuaren 1. eta 2. artikuluen aplikazioa. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lanaldien urteko lanordu-kopurua finkatu zen, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako ordu konpentsazioak ere.

**5. artikulua.** Zerbitzuko dietak.

Zerbitzua dela-eta egin beharreko bidaien kalte-ordain gisa ezarritako dietak kendu egiten zaizkie Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei. Foru lege honek indarra hartzen duenetik, behar bezala justifikatutako gastuen zenbatekoa baizik ez da itzuliko.

**6. artikulua.** Osasun Laguntzako Zerbitzuaren “Erabilera Berezia” izeneko modalitateko tarifak.

1. 2012. urtean, Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzuaz baliatzen diren Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioentzako optikako eta odontologiako prestazioek tarifa hauek izanen dituzte (prestazioak abuztuaren 19ko 186/2002 Foru Dekretuaren eranskinaren 9. eta 10. ataletan ezarrita daude):

– Optika: betaurreko graduatuen eta ukipen-lente graduatuen kasuan, kostuaren 100eko 75 itzuliko da. Kontzeptu horiek direla eta, gehienez 200 euro itzuliko zaizkio onuradun bakoitzari urte natural bakoitzean.

– Odontologia: Odontologiako gastu guztietan, kontsultak eta kirurgiak barne, guztirako kostuaren 100eko 60 itzuliko da. Atal honetan, gehienez 200 euro itzuliko zaizkio onuradun bakoitzari urte natural bakoitzean.

2. Prestazio farmazeutikoari, prestazio ortoprosesikoari eta osasun garraioari dagokienez, Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzuaz baliatzen diren funtzionarioei Osasun Sistema Nazionaleko onuradunek Nafarroan dituzten baldintza berberak aplikatuko zaizkie.

3. Aurreko idatz-zatietan jasotako aldaketak aplikatuko zaizkie foru lege honek indarra hartu eta hurrengo hilabetetik aurrera itzultzeko aurkezten diren gastuei, kontuan hartu gabe gastuak noiz gertatu diren.

**7. artikulua.** Sindikatuen ordu kreditua.

1. 2012. urterako, 100eko 10 murrizten da, oro har, sindikatuek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan gaur egun duten ordu kreditua. Murrizketa hori eginda ere, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean ordezkari organoetako kideentzat finkatutako ordu kreditua errespetatu beharko da, eta, orobat, ordezkari sindikalentzat Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoan finkatutakoa.

2. Aurreko idatz-zatian jasotako neurriaren aplikazioa errazteko, sindikatuek aukera izanen dute ordu kredituen transferentziak egiteko hauteskunde unitate batetik bestera, mugarik gabe.

3. Murrizketa honen ondorioz eten egiten da, partez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako eskubide sindikalei buruz Administrazioaren ordezkariak eta sindikatuek 1994ko urriaren 18an sinatutako Akordioaren aplikazioa, baita Administrazioaren

esparru sektorialetan dauden gainerako akordioen aplikazioa ere.

4. Artikulu honetan jasotako sindikatuen ordu kredituaren murrizketa Nafarroako gainerako administrazio publikoetan ere aplikatuko da, betiere 1. idatz-zatian jasotako araudian finkatutako ordu kreditua errespetatuz.

5. Eskubide sindikalen aplikazioaren ondorioz, lanpostura joan beharraz salbuetsita dauden langileek beren lanpostuari dagozkion oinarriko ordainsariak eta lan osagarriak jasoko dituzte, eta, horiez gainera, beren lanpostuen ohiko lanaldiaren ondoriozko elementu aldakorrak, hots, txandakako lanari, gaueko lanari eta jaiegunetako lanari dagozkienak. Horrenbestez, beren lanaldi arruntekoak ez diren beste zerbitzu erantsi batzuk egiteagatik aurreikusita dauden konpentsazioak ez dituzte jasoko.

**8. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideei eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen goi-karguei buruzko neurriak.

1. Gizarte Segurantzako kotizazioa dela-eta nominetan egiten den deskontua kalkulatzeko, Nafarroako Gobernuo kideei arau orokorrak aplikatuko zaizkie.

2. Nafarroako Foru Komunitateko goi-karguentzat berriaz sinatutako bizi-aseguruak eta istripu-aseguruak indarrak gabe uzten dira.

3. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzutik ateratzen dira Nafarroako Gobernuo kideak eta gaur egun Gobernuan dauden gainerako goi-karguak eta goi-kargu izandako guztiak, salbu eta hartarako eskubidea dutenak sistema horri atxikitako funtzionario izateagatik.

4. 2012. urterako, Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi-karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarritako osagarri pertsonala, 3.bis artikulua 5. idatz-zatian hain zuzen, funtzionarioaren mailaren hasierako soldataren 100eko 10era murrizten da.

**Lehen xedapen gehigarria.** Foru lege honen aplikazioa Nafarroako administrazio publikoetako estatutupeko eta lan-kontratuko langileentzat.

1. Foru lege honetan jasotako aurreikuspenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko estatutupeko eta lan-kontratuko langileei aplikatuko zaizkie, funtzionarioentzat ezarritako baldintza berberetan.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko- en zerbitzuko lan-kontratuko langileen kasuan, administrazio bakoitzak erabakiko du nola aplikatu neurriak, foru lege honetan ezarritako irizpide orokorre jarraikiz.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Foru lege hau nola aplikatu Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratuko langileei.

Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratuko langileei honako hauek aplikatuko zaizkie: 1. artikuluko 1., 4. eta 5. idatz-zatiak, jardunean segitzeari buruzkoak; 5. artikulua, zerbitzuko dietei buruzkoa; 7. artikulua 1. eta 2. idatz-zatiak; eta artikuluko horren gainerako idatz-zatiak, oro har, sindikatuen ordu kredituari buruzkoak. Lanaldiari dagokionez, urteko lanordu kopurua astean 35 orduko proportziokoa izan beharrean –hala dago ezarrita martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legearen 3. artikuluan–, luzatu eta astean 37 ordu eta erdiko proportziokoa izanen da. Lanaldiaren iraupen hori izanen da aplikatuko dena, harik eta, etorkizunean, lanaldiaren iraupena eta gainerako lan baldintzak arautzen diren arte, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren hitzarmen kolektibo berariazko eta bereki batean, edota enpresa publikoen hitzarmen kolektibo berariazko eta berekietan.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Nolanahi ere, foru lege honetako neurrien ondorioz egiten diren lanaldi aldaketengatik ez da inolako lansari-igoerarik izanen.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Indargabetzen diren arauak.

Arau hauek indargabetzen dira:

a) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezarri zuen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko abenduaren 13ko 21/2010 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarria.

b) Lehendakaritzako eta Barneko kontseilarien urtarrilaren 18ko 5/1999 Foru Aginduaren 1. eta 2. artikulua eta, orobat, horri dagokionez, toki entitateetan dauden arauak. Aipatutako foru agindu horren bidez Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen dieta eta kilometrajeagatik ordainak finkatu ziren.

c) Foru dekretu honek ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehena.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publiko- en zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzea.

1. Testu bategin horren 27. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Funtzionarioak eskatuta, eszedentzia berezia onar daiteke, hiru urterako gehienez subjektu eragile bakoitzeko, honelako kausa hauek justifikatuz gero:

a) Seme-alaba bakoitza zaintzeko, naturalak zein adoptatuak, eta adoptatu aurreko harrerafasean edo harrera iraunkorrean daudenak. Epea haurra jaiotzen denetik edo, bestela, epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik aurrera kontatuko da.

b) Langilearen kargura dagoen odol edo ezkontza bidezko ahaideren bat zaintzeko, bigarren gradu artekoa -hori barne-, baldin eta adinagatik edo istripu edo eritasun baten ondorioz bere kasa bizitzeko gauza ez bada eta lan ordaindurik egiten ez badu.

2. Kasu guztietan, eszedentzia berezia emateko, funtzionarioak deklaratu beharko du bitartean ez duela beste jarduera profesionalik edo lanik egin behar.

3. Eszedentzia berezian dauden langileek jatorrizko lanpostua gordetzeko eskubidea izanen dute, baina ez dute eskubide ekonomikorik sorraziko. Antzinasunaren ondorioetarako, egoera horretan dirauen denbora guztia kontatuko zaio, eta eskubide pasiboen ondorioetarako, langilea atxikita dagoen aurreikuspen sozialeko araubidearen araudian xedatutakoari lotuko zaio.

4. Eszedentzia berezia haren subjektu eragileari dagokion gehieneko eperako emanen da. Gehieneko epea bukatuta, interesdunek jarduneko zerbitzura itzuli beharko dute eszedentzia bukatu eta biharamunean, nork bere jatorrizko lanpostura.

5. Emandako eszedentzia berezia bukatu ez bada ere, interesdunek noiznahi eskatzen ahalko dute jarduneko zerbitzura itzultzeko. Itzultzea erabaki ondoren, hilabeteko epean gauzatu behar da. Hala egin ezean, langileak galdu eginen du funtzionario izaera.

6. Aurreko idatz-zatian aurreikusita dagoen alde aurreko itzultzea gertatzen bada, funtzionarioek beste eszedentzia berezi bat eskatzen ahalko dute subjektu eragile bera dela kausa, baina behin bakarrik, gehieneko epea bukatu arte gelditzen zaien denbora bete arte. Horrelakoetan, sei

hilabete utzi beharko dira jarduneko zerbitzura itzultzen denetik hurrengo eszedentzialdia hasi arte.”

2. Aipatutako testu bateginaren 83. artikulua 3.b) idatz-zatia aldatu da. Hona testu berria:

“b) Osasun Departamentuko erakunde autonomoi atxikitako langileak.”

3. Aipatutako testu bateginari hogeita batgarren xedapen gehigarria eransten zaio. Hona testu berria:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan administrari lanpostuak (C maila) eta administrari laguntzaileen lanpostuak (D maila) betetzeko egiten diren lekualdatze lehiaketak batera eginen dira, eta deialdi bakar batean.”

**Azken xedapenetako bigarrena.** Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen aldaketak.

1. Foru lege horri 36. artikulua erantsi zaio, honako hau dioena:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eremu jakin bati atxikitako langileentzat mugatutako merezimendu lehiaketa murriztuaren bidez lanpostuak betetzeko aldez aurreko barne egokitzapenetan, bermatuko da eremu horretako plantillako langile guztiek baldintza berberetan parte har dezaketela, betiere eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte, zeinahi delarik parte hartu aurretik zuten araubide juridikoa, hots, fun-

tzionarioena, lan-kontratuko langileena edo estatutupeko langileena, eta horrek ez du ekarriko araubide hori aldatzea. Dena dela, lanaldi partzialeko lan-kontratuko langileek lanaldi osoko lanpostu bat eskuratuz gero, funtzionario izaera berenganatuko dute.

Aldez aurreko barne egokitzapenetan, funtzionario araubidea edo estatutupeko langileen araubidea dutenek aukera izanen dute lanaldi partzialeko lan-kontratatuaren lanpostu bat eskuratzeko. Horrelako kasuetan, borondatezko eszedentziara igaroko dira funtzionario edo estatutupeko langile gisa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren 26.1.a) artikuluan araututako baldintzetan.”

2. Zortzigarren xedapen gehigarria eransten zaio aipatutako foru legeri, honako hau dioena:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berriazko erregimena arautzen duen foru lege hau, eta orobat, legea garatzeko ematen den legezko eta erregelamenduzko araudia Osasun Departamentuaren menpeko gainerako erakunde autonomoi atxikitako langileei ere aplikatuko zaizkie.”

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

1. Foru lege honek 2012ko uztailaren 1ean hartuko du indarra, salbu eta horretarako beste egun bat zehaztua duten idatz-zatiak.

2. 2012. urteari dagozkion neurriek ondorioak izanen dituzte foru legeak indarra hartzen duenetik urte hori bukatu arte.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 28.4 artikulua, zerga-oinarriaren aldaketa arautzen duena.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2012ko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 28.4 artikulua, zerga-oinarriaren aldaketa arautzen duena.

Proposamen hori 2012ko apirilaren 20ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondare osoaren inbentarioa egin dezan.**

**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko ekainaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eliza Katolikoak eginiko immatrikulazioek ukitutako ondare osoaren inbentarioa egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, toki entitateekin elkarlanean, Eliza Katolikoak egindako immatrikulazioek ukitutako ondasun guztien inbentarioa egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan, 1946ko otsailaren 8ko Hipoteka Legeko 206. artikulua eta Hipoteka Erregelamenduko 304. artikulua indargabetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipaturiko toki entitateen jabetzako ondarearen defentsa juridikoa egin dezan, jabetza publikoko ondasunak edo herri-lurrak direla agerikoa denean, baldin eta toki entitateek eskaria egiten badute.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritakoa, 5. kapituluako 2. idatz-zatiari dagokionez.**

**OSOKO BILKURAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko ekainaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete dezan Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legean ezarritakoa, 5. kapituluako 2. idatz-zatiari dagokionez”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legeko V. kapituluako 2. idatz-zatia bete dezan. Hartara,

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, urtean behin, hezkuntza programa bat zabalduko du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasotzen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, egoki iritzitako iraupena izan den duena, terrorismoaren aurkako bizikidetasun baketsu eta demokratikoaren balioak jaso eta islatuko dituen eta gazteak kontzientziatuko dituen ideia demokratikoak aldezteko bitarteko eta modua den aldetik hitzak duen balioari buruz. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuei ere emanen zaie aukera hori.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera



## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona atzerritarren internamendurako zentroak itxi ditzan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko ekainaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona atzerritarren internamendurako zentroak itxi ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du atzerritarren internamendu-zentroak itxi ditzan, eta, ondorioz, alda dezan Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, eta susta dezan halako migrazio politika bat non gizarteratzean egiazki oinarrituta egonen den, eta ez populazio migratzailearen erabilpenean, oinarritzko eskubideak ziurtatuko dituen pertsona guztientzat, beren jatorria zein ere den.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berma dezan atzerrita-

rren internamendu-zentroetan dauden pertsonen giza eskubideak errespetatzen direla eta tratu ona ematen zaiela.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du berma dezan egun dauden atzerritarren internamendu-zentroek bizigarritasun baldintza hoberenak dituztela, halako moduan non bertan dauden pertsonak egonaldi duina izan ahalko baitute.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen presta dezan erregelamendu bat zentroen funtzionamenduari eta internamendu-baldintzei buruz, eta, horretarako, alor horretan lan egiten duten erakundeen parte-hartze egiazkoa, eta ez bakarrik formala, egon dadin (Parlamentu honek onetsitako testua, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2012ko martxoaren 1ean onetsitako adierazpen instituzionalean)."

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udako hilabeteetan “Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea” programari euts diezaion.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko ekainaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udako hilabeteetan ‘Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea’ programari euts diezaion.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Udako hilabeteetan ‘Gazteluen eta Gotorlekuen Ibilbidea’ programari euts diezaion.

2. Azter dezan bisita bakoitzeko sarrera bat kobratzeko eta bisitak astelehenetik igandera egiteko aukera.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Erabakia. Horren bidez, Kanpo Arazoetarako Ministerioa premiatzen da ziurta dezan Armen Merkataritzari buruzko Itunean nazioarteko zenbait arau sartzea.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko ekainaren 15ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Kanpo Arazoetarako Ministerioa premiatzen da ziurta dezan Armen Merkataritzari buruzko Itunean nazioarteko zenbait arau sartzea.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuo Kanpo Arazoetarako ministroa premiatzen du ziurta dezan Armen Merkataritzari buruzko Hitzarmenak ondokoak jasotzen dituela:

i) Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren “Urrezko Erregela” bat, debekatze aldera armen transferentzia baimentzea baldin eta arrisku nabarmena badago transferentziaren xede diren arma horiek erabil daitezten Nazioarteko Zuzenbidearen, Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larriak egiteko edo egiten laguntzeko.

ii) Estaldura zorrotz bat, barne hartuko dituen arma, munizio, armamentu nahiz horiekin lotutako

material oren eta transferentzia oren gaineko kontrolak.

iii) Araudi sendoak lizentziak emateko sistemei buruz, gardentasuna eta txostenen aurkezpena.

2. Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio Espainiako Gobernuari, eskura dituen diplomazialibide guztiak erabil ditzan, gobernu guztiekin harremanetan jartzeko eta arestian aipatutako auzi guztiak Armen Merkataritzari buruzko Hitzarmenaren jasotzea bermatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak dei berezia egiten die Txinari, Errusiari, Amerikako Estatu Batuei, Erresuma Batuari, Frantziari, Turkiari, Australiari, Indiari, Indonesiari, Hego Afrikari, Mexikori, Europar Batasunari, Brasili, Nigeriari eta Egiptori, beren eragina balia dezaten Armen Merkataritzari buruzko Hitzarmenak 1. puntuan aipatzen dena jasotzen duela ziurtatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Parlamentuko lehendakariari jarraibideak ematen dizkio erabaki hau igor diezaien Espainiako Kanpo Arazoetako Ministerioari eta 3. puntuko zerrendan ageri diren herrialdeetako gobernuari, gure herrian dituzten enbaxaden bitartez.

5. Europar Batasunak jarrera aktibo komuna susta dezan hurrengo negoziazio konferentzian, zeina Nazio Batuen egoitzan eginen baita uztaillaren 2tik 27ra.

6. Espainiako Gobernuak onetsiko duen gardentasun legean jaso daitezten armen esportazio-

ari buruzko informazioa eskuratzeko tresnak, Sei hileroko parlamentu-kontrolari eta -informazioari buruzko abenduaren 28ko 53/2007 Legeko 16. artikulua betetze aldera.”

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

### **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteentzako informazio aldizkariak gaztelaniaz eta euskaraz aldi berean argitaratu ditza.**

#### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarrak, 2012ko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteentzako informazio aldizkariak gaztelaniaz eta euskaraz aldi berean argitaratu ditza.

Mozio hori 2012ko martxoaren 30eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

---

### **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzetarako buruzko plan orokor bat aurkez dezan.**

#### *MOZIOA ERRETIRATZEA*

Legebiltzarrak, 2012ko ekainaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da alokairuko etxebizitzetarako buruzko plan orokor bat aurkez dezan.

Mozio hori 2012ko apirilaren 11ko 34. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailletza sustatzeari buruzko irakasgai bat ezar dezan.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Amaya Zarranz Errea andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ekintzailletza sustatzeari buruzko irakasgai bat ezar dezan".

Legebiltzarrak, 2012ko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2012ko martxoaren 30eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera